

ALTUBE'TAR SEBER

EUSKALTZAIN BÉRIAK BERE SARERAKO EGUNEAN

IRAKURITAKO

ITZALDIA

TA

R. M. DE AZKUE

EUSKALTZAINBURUAK EUSKALTZAINDIA'REN IZENEAN

ZUZENDU ZION

ONGI ETORÍA

Bilbo'n, 1920^o lotazilaren 28 an.



ALTUBE'TAR SEBER

EUSKALTZAIN BERTIAK, BERE SARERAKO EGUNEAN, BILBO'N
LOTAZILAREN 28^a IRAKURITAKO LANA

EUSKALTZAIN JAUNAK :

Lenengoz, eskerak zeuei, euskaltzaindijak izan daberen lenengo utsunea beteteko, niri, toki onetarako onen gauza-ez oni, dei-egin deustazuelako.

Bigarenez, agur biotzetiko bat, nik ezetara ere bete ezin neikean utsune au emen isteko eriotza-erukigeak eroan euskun euskal-idazle bikain eta ezlotsu Domingo Agiré zanari. Agur bañu-bañutikoa, bai, euskaltzale orooren biotzok, bere eriotzeaz tamaldu zituan euskal-idatz-ipuinlari gurenari. ¡Goiñan Bego!

Agur bi orooren ufengo, azaldu daigun, gaurko itzaldi onen gaija zein izango dogun; ona emen : « Izkuntz-jakintzia ta euskeriaren bizitzia. »

Gai zaila ta sakona; nire jakituri muñi ta meatzarentzat, lafegikoa. Baiña beronen oraingoxetasunak, berau, beste gai guztien gain imini deust neure adimen aurrean : ixileko indar batek bezela eroan nau, gaurko, gai orixe autu-erazotera.

Euskerearen bizitzia : esan beařík eztala dirudi baiña bada : euskaltzaleok, euskerea maite dogula diñogunok, euskereari dagokon gauzeetatik gorengotzat, beñientzat, nagosijentzat, beronen bizitzia euki bear dogu. Beronen edestija, beronen zaartasuna, beronen edertasuna, bero-

neri buruzko geure eretxi-meretxijak eta enparau guztija, eztira ezer ere; bazlefera jaurti bear diugu, euskeriaren bizitzia bera, laguntasun eske, oiuka, deika, erostaka ikusten dogunean.

Eta ¿eztabilku, gaur, ofela, geure izkera maiteau?

Aundijak dira, bai, gaur, gure izkera maite onen bizitza gaixotuau osatzeko jarkiten diran eragozpenak. Euskaldunok geure bijotzotan asmetan dogun beraganako suzko maitefasun aundijaren berotasun oso-osea bear dau, ez ilteko, Europako izkera zaafena dogun geure euskera maite onek.

Baiña geure maitefasun ori, ez bedi itxua izan; maitefasun itxuegija, safi, maite dogun gauziarentzat, laguntasun ordez eragozpen izan oi-da-ta; mesederen ordez kalte.

Maitekeri itxu ofek, euskeriaren bizitza edo izaletasunaren goiik, beronen edertasuna, zelakotasuna, imini oi-deusku safi; eta zentzunbakokeri ofek, bide okeretik eroan giñaikez.

Begiratu daijogun bada otz-otzez, ezetariko biotzkeri barik, geure izkera onen bizitziari, ta gero berau sendatzeko ta indartzeko, autu daiguzan biderik onenak, egokijanak, ziuñenak.

¿Zeintzuk dira ofako bideok?

Lenengo eta beñen, ekin gogoz, bere osasunaren, bere bizijaren kaltezko eragozpenok zeintzuk diran ezagututa eurok kendu, urindu eta baztartzen; ofetarako, maitefasunezko deijak egin, euskalerijonen lau aldeetara; ta euskaldun bijotz-oneko orori erakutsi, euskeriari eusteak, geure efi ta abenda zaar oni, zelako onura aundijak ekañi leikeozan; onura gogotafak, arimatafak atan-be, gaur-eguneon, gizonaren noberekortasun lafegiko ta deungeak, erijok galdu-mendirik izugarijenera jausten ez isteko bear-beafeko diran onurak.

Onetarako erabagi egoki-egokiz, imini zenduen euskaltzain jakitunok, zeuek eraldutako euskaltzaindijaren sortarauetan, Euskera-jagolea deritxon saila. Goiko jaunak lagundu bekijoe, sail ori euren ardurapean artu dabeen euskaltzain lagunai; euron lana da, gure ustez, euskeraren bizitzia sendotzeko ta goratzeko indarrik geijen dabena-ta.

Euskeraonen bizija zaintzeko gure ustezko bigarren bideori, izkuntzalari jakituneen irakatsijai jaramon egitea da.

Emeretzigafaren eun-urtekoaren asieretan, Franzz Bopp izkuntzalari ospatsuak, Sanscrit, Alemani'tar, Grezi'tar, Persi'tar eta latin izkereen anaitasuna erakutsiz, izkuntz-jakintza bafijaren lenengo oiñafijak sendo ta sakon imini zituan aldijan bertan, Bizkaï'ko seme ospetsu batek, bere bijotzean eban euskeriaganako maifetasun aundiya, bere adimen-argifasun bizija eta bere jakituri zabal eta sakona alkarfen leijan agertzen zituala, idatzi eban, euskeria gaitzat artuta, aintxiñako izkuntz-jakintziaren landara edereder bat: jakintza zaar oren azken lora-koroitzat, bere bizikoa. Euskaldun goragañi ori Astarloa, Durango'ar seme zintzoa zan.

Orain bezela orduan ere, euskaldun eta euskotar askok euren izkeriaganako eben otzitasun aitu-eziñezkoa urindu nairik Oihenarte, Harriet, Moret, Etxabe eta Lará mendik, aufetiz agertu zituen idazkijen euskeriarentzako gorakadai labur eretxirik, idatzi eban, Astarloa abade ospetsuak, arako bere bidez aldi atako euskaldunen bijotzak, biziro zirkindu al-eukezan liburua: « *Discursos filosóficos sobre la primitiva lengua* » zan bere izena.

Astarloa'k, liburu oretan, aldi atako izkuntz-jakintza ezaupideak, ondo aratu zituan; etzan aspertu euskeria goratzeko artu eban lanari ekifen, ikaste eta azterketarik neketsuen eta zailenak igaro bear izanaren ere; aldi atan

izkuntz-jakintziak eskiñiten zituan ikasbide eta eztabaida orotara ere jo eban, maite-maite eban euseria, bere Eñiko izkera kutuna, al-eukean goren eragiteko. Astarloa'k emon eutsan Aberijaren izkeriari beroñek semerik zintzoenari eskatu leikeon guztija. Bardin diñogu beste aifatu ditugun eta ezlitugun aintxiñako euskaltzale askori buruz ere.

Baiña guk, orain, aurretikoen duin izateko, eta euren gomutia goratzeko ere, ezlitugu eurak jaraitutako ikasbideak eta jakin-bideak, zeatz-zeatz, oiñez-oin, ibili bear. Areek, euren gizaldijetan ziran jakintza eraen bidez egin eben lan, euseriaren alde; guk, geure gizaldikook ikasi bear ditugu, eta euroi jaraitu, geure euskal-lanetan.

Orok dakizue, eta nik baiño obeto, izkuntz-jakintziak, azken igaro dan eun-urtekoan, zelako auferakuntzia egin daben. Izkuntziari buruz lenagoko jakitunak zituzean usterik geijenok, itxulaztuta, bestalderatuta utzi ditu auferakuntza oñek.

Egi sakon bat ezalgetzetik sortu zan auferakuntza oñen lenengo zustraija; ona emen egi ori zein dan :

Europa osoan (ipañ-aldeko efi txiki batzuk eta auxe geure au izan ezik) eta Asia'ren zati andi baten bizi diran izkera oro, ama batetik sortuak dirala; Indo-Europa'ta orokaña deritxon edo bere antz-antzeko izkera zaaren batetik sortuak.

Europa ta Asia'ko ainbeste izkereen jatoñi bakañori ezagutu ezkeru, euren oroen edesti osoa ere, eñez-eñez estalgetu dabe izkuntzalarijok; izkera oñeen bi, iru ta lau mila urtez onako gora-beraak, euron aldakuntzaak, batzuen garaitzaak, beste batzuen eriotzia, guztija zeatz eta garbi erakustera eldu da, bide oñez, gaurko izkuntz-jakintzia. Jakiña, gauzai euren zustraija, euren itur-burua idoro ezkeru, eñez da, eurak guztiz argitzea; goñlik berako lana da, beste euren zertzelada oro ezalgetzea.

Orixe gertatu da bada aifaturiko Europa ta Asia'tar izkera ofeezaz ere; euron itur-burua, euron ama eragertu zanean, euron izakera ta edesti oso-osea estalgetzea ere, berealaxe lortu zan.

Estalgekuntza ofek zabalduetako argitasunaren bidez, Indo-Europa'ta'ez beste izkera askoen senidetasun, edesti eta abar ere eragertu dira; eta azkenez, ezaupide eder eta ugari ofeek, gorago esan dogun bezela, izkuntz-jakintza guztija auferatu eta argitu dabe.

Jakintza onek, munduko izkera geijenak, ainbat eratako sendi eta piloetan mortxakatuta, multxotuta eragertzen deuskuz; gure euskera au bafiz, izkera-zurtz, ifungo beste izkeraz ezetariko senidetasun barik.

Baiña, jakintza ofek berofek irakasten deusku: berofen irakaskijok, beste edozein izkerari legez geure euskera bakarti oneri ere, bardin ezañi geinkeozala; izkera orok, zustrai-legeak bardiñak ei-ditue-ta. Olan diño Albert Dauzat, izkuntzalari jakitunak¹: « Agerkunok, gaijok bardiñak izan ez añen (diño) aste-iturijak batetarikoak dira, eta izkereen biraldakuntza lege nagosijak, beti ta edonun, bardiñak dira. »

Báditue izkuntzalarijok ere, euron arteko eztabaidak (au gizon-jakintza geijenetan gertau oi-da); baiña andijak dira oro eretxi bateko diran aldeuneak ere. Azken aifaturiko izkuntzalarijak berak dirausku²:

« Izkereen agerkun nagosijai buruz, uste bardiñeko dirala esan lei oraingo izkuntzalari oro: izkereen agerkeraok zelan pilokatu ta zelan aztertu bear dabeen; izkereen alde guztietatiko ta guranaiezko biraldakuntzia; izkeraok, izkelki eta izkera-berezijetan zatikatzea, eta orde, aberi-izkera nagosijak, txikijok zapalduz, nagositzea; itzotseen aldakuntza arauzko ta ulertzekea; gramatika-erakijak eta euron ikurpen edo zentzunak alkar-antzaren inda'ez aldatzea; itzeen

1. Dauzat, *Philosophie du Langage*, 4^o gn. of.

2. Dauzat, aitatutako liburua, 322.

sortzeria eta euron ikurpen aldatzea; erbestetiko itzeen lur-artzea eta eurok eñi-antzekotutea; itz barriak zelan eraltzen diran... Agerkun guztijok zeatz-zeatz pilokatu, berezitu, ta euron azterketia ziper-ziper egin oi-dabe gaurko izkuntzalaririk, oro eretxi bateko dirala.»

Ikusi daiguzan bada orain, izkuntzalari orok ao-batez irakasten deuskuezan eta euskeriaren bizitzia zaintzeko jakingafi deritxoguzan ofeetariko ikaskai batzuk. Bide batez, oraingo izkuntzalarijen eretxiz, zuzendu, ezetsi eta baztatu bear ditugun aintxiñakoen irakaspide batzuk ere aztertu daiguzan.

Ikusiko dozuenez, nik gaur agertu dagizuedan guztija, izkuntzalari jakitunenetarikoen eretxi argi eta irakasgariz sendotuta izango da; badakit, ofeetaraxe izan ezik, nire itzok, erabiliko ditudan gai astun eta gaitzetarako, makal eta inortasun bakoak litzatekezana-ta.

Eta bide onexeri jaraitu nai geuskijo beti geure euskera laneetan; ordua dogu ija, izkuntzalari ez garen euskeltzaliok, itxi geure burutiko osagaririk maiteegi izateari eta jakintziagana, izkuntz-jakintziagana, beste edozein jakintza baizen aufera aurkitzen dan ofegana osagarri bila joten asteko-ta. ¿Zer beztela? ¿Zer esango geunke, euren ama gaixorik dabeela, itxi mediku-jakintziari ta euren buruz osatu nairik, batak au ta besteak ori, ezta-baidan liardukeen seme buru-gogoarakaitik? Amari deutseen maifetasuna baiño euren burugogortasunori aundijagoa dabeela ziñez.....

Gaurko jakitun orok dirauskuenez, munduko izkera oro, geldi baiña geratzeka, aldatzen-eta-aldatzen ari dira beti.

« Izkeria (diño Dauzat'ek ¹) gizaldirik-gizaldi, beti, bariztatzen ari da..... Izkereen biraldakuntzia, geldija ta auferakoia da; izkereen auferatze edo bilbea, ikusgarizko bardintasunez eta jaraitasunez gertau oi-da.»

1. Dauzat, a. 1. 53.

Egi ori bañiz, iñok ezetara ukatu eziñezko argitasunez irakasten deuskue gaurko izkuntzalarijak. Ona emen, Gregoire abizena daben beste izkuntzalari jakitun bate diñoana¹ :

« Izkuntza baten gizaldirik-gizaldirako biraldakuntzia ondo ikusi al-izateko, idazti-atal bat gizaldi askotako eraz begi aurrean imintea da onena. »

Emen Gregoire'k diñoan bezela, izkuntzalarijok, izkera askoren iragoko iru-lau mila urteetako aldakuntza mailak, zeatz eta garbi eragertzen ditue. Iminten dabe, adibidez, izkera bateko idazti-atal bat, gaur-eguneko eraz idatzila; bere alboan atal berbera, orain dirala bosteun urte izkera ori bizi zan eraz; gero, orain mila urtez; ufengo, bi milakoz; eta olantxe, iru-lau mila urtetara eldu arte. Mailatza orien lenengo idazki-atala ta azkena, iñok eleuke ezango jatofi batetikoak diranik, eztabe ezetariko antzik-eta; baiña maila oro ikusi eta bakoitzari buruz izkuntzalarijok eragertzen dituezan ikashideak bururatu ezkerero, ezta iñor euren eragerkun ori, zentzunez, ontzat emon ez leikeanik.

Olantxe ikusten dogu bada garbi : edozein izkera, bere sortze-orduan naiz geroko bizitza guztijan, beti aldatzen ari dala; biraldakuntza legea dala bera alde guztijetatik inguratzen dabena.

« Izkera bizija (diño Gregoire'k²) bere bizitzaldijaren unedarik txikijenean ere, ezin egon leiteke aldatzeka. »

Aintxiñako izkuntz-jakitunak, etziluezan gauzok olan ikusten; izkeria gauza geldikoitzat euken areek; ezeben ikusten izkeriak, bizitzia daben izaki orok bezela, euren indaía dabenik, euren bañuko indaía; eta beraz, biralda-

1. Gregoire, *Petit Traité de Linguistique*, 56.
2. Gregoire, aitaturiko liburua, 54.

kuntza-peeko izakijen izate-eria dabeenik ezeben uste izan. Baldin izkera baten itzen bat, itz-otsen bat, izkiren bat edo beste edozer eraki, galtzen edo aldatzen agertu oi-bazan, izlari makuñak eben efua.

« Oindiño oraintsurarte (diño azken aítaturiko izkuntzalarijak ¹) izkereen aldakuntzaak, galtzeitat, makurkeritzat artu oi-ziran. Oraintxe ere, askok dabe uste oker ori buruan sartuta. »

Uste oker ofek beste bat ere bádu bere atzean : izkereen aldakuntzok eragoztea, al-daíteken gauzia dala eris-tea; eta geijago : aldakuntzaok, bañiro lengotaraztea ere, gauza eginkoia. Jakiña, uste ofetako izkuntzalarijen eretxiz, izkuntza-erakijak, gauza ilak dira; eta gauza ila aldenduta ba'dago, ufínduta ba'dago, lengo tokira ekarte-érea da. Baiña, esan dogunez, oraingo izkuntz-jakin-tziak irakasten deuskunez, izkera bateko itzak, itz-otsak, izkijak eta beste erakijak, aldatu edo ufíndu oi-diranean, geijenetan indar bañukoi batek, biraldakuntza indafak hultzatuta egin oi-dabe, eta ufínduta edo aldatuta dagozan tokitik lengotara ekafi al-izateko gauza bi bear dira : lenengo, indar bañukoi ori, atsendu, uxatu, il; eta gero, itz edo eraki ori itxulaztuteko, lengotaratzeko, indafa ezafi. Gauza gaitzak bijok, eta geijenetan, gure al-izatea baiño goragoko egiñenak.

« Gogo edo najak (diño Dauzat'ek ²) geijenetan, eztau ezetariko indafik izkerearen gain (eta aintxina gitxiago orain baiño ere), izkerea batera izan, bestera izan, bardin deutse gizonik geijenai-ta...

« Bestetik, norberen izkera-oiturak aldatzearen gaitziasuna, bera da naikoa geijenetan, alpeñiko asmook bazartu eragiteko.....

« Erdera bat ikásteke (geijenetan oso txarto) zelako nekeak artu bear izan oi-diran gogoan euki ezkerero, garbi agiri da, norberen izkerearen itz-ots biraldakuntziari ez jafaitzea, zein gaitz litzateken, gizon elduentzat atan-be. Emeretzigañen eun-urtekoan, Paris'tafak euren lenagoko *éle* itz-otsa *eye'* gaz ezegijela aldatu eskatuz, orduko

1. Gregoire, a. l. 56.
2. Dauzat, a. l. 64.

gramatikalarijak egin zituzcan erégu guztijak, alper-alperíkoak izan ziran.....

« Gauza guztijak lagundu oi-dabe, gogo edo naijak, izkerearen biraldakuntziari buruz egin leikeana, oso gitxitu edo ezebeztuten.....

« Gure gogoak, gure asmakizunak, indar geitxuago dabe, egija da, iztegi arazoetan : baiña euroetan ere, ikurpen-aldakuntzak, naiz itz-baíi asmaketaak, lendik bizi diran itzeen antzez izan bear dabe; izkeriaren jaíai-gura edo jokera nagosijai eta oraingoxeai jaíaitu bear deutsee, bestela entzuleak ezteuskuez ulertuko geure asmakizunok, lenengotan beintzat.

« Dana dala, eletrika-ari batek beraganatuta daben mukur bat, eskuaz tiratuta kentzeak, eletrika-indaíaren erakarkizun legea ukatzen eztaben bezela, noiz-edo-bein, nai dogula, geure naijaren indaíez, izkera baten gain zerbait lortzeak ere, eztau ukatzen, izkeria zaindu ta eraltzen daben legeak gizonaren naijaz zer ikusirik ezta-beena. »

M. Vendryés¹ iskuntzalarijak ere ona emen zer diñoan itz-otsai buruz :

« Ozeani-aldeko erí batzuetako lagunak, euren gorputzak itxura-bakotzeko egin oi-dituezan mozketa eta makurkerijak, gizagorputzari jagokozan legeai kalterik egíen ezteutzen bezela, izkera bategan, nai dogula, itz-otsen bat aldatzeak ere, ezteutso indaírik kentzen itz-otseen biraldakuntza legeai. »

Ezlitugu eretxi onetako gure arteko euskaltzale asko ; oneek, Vendreyes'ek eta Dauzat'ek eta, euren eñijetan diñuen eskola, teatru, akademi ta abar, euskereirentzat euron eskuetan baliñue, eletrika-ari bateri mukur bat kendu bakaírik ez, izkera onen baíu-indar guztiak auldu, ezebezataratu eta euskeria katakumatxu bat bezela ezita edonora eroateko moduan leukakeela uste oi-leukee. Euskaltzale asko ta askok geure uste ta eretsijok, izkuntz jakintziaren irakatsijetatik, uíin, uíin darabilguzala autortu bear dogu.....

Aintxiñako izkuntz-jakintziak oraingoaz daben beste alde bat, ufengo auxe da :

Aintxiña izkereen legeak, eurak zelan bizi zirean, zeatz

1. Vendryés, *Mélanges Meillet*.

eta ondo ikasiz atara ta argiztu beafean, zentzun legeak eredutzat lařegiz artuta eraldu oi-zituen. Orduko izkuntzalarijak (asi Aristoteles' en aldijetatik eta gero) izkera baten sortueria, bizitzia ta izatea zelakoak ziran eragertzeko, zentzuna, zentzun-leggedija naikoa zala (edo beintzat nagosi) uste izaten eben; euren ustez, ezegoan aintxiřnagoko beste izkera batzuen estalgetze beafik; eta len esan dogun bezelako izkera-mailatza ta antzeko ikasbiderenik ere ez.

Oker ebiltzazan, gaurko izkuntzalarijok irakasten deuskuenez. Ona emen oferi buruz Dauzat biraitatutako jakitunak dirauskuna¹ :

« Ainbeste-ta-ainbeste zertzelada eta zirkiluz agertzen dan edozein izkerari buruz, bere bizitziaren edozein aldiřako izatearen zegaittija azaltzeko, edestijari, bere aintxiřnagoko izate-ereari begiratu bear deutsagu, eta beste ezeri ere ez. Ez beintzat zentzun-leggedijari, izkerea aurfetijez oldoztu eta gero egindako, buruzko gauza bat balitz bezela. Aintxiřnako gramatikalarijak zustrai andiko egi orixe jakin ezebelako, okerřeko bideetatik eroan zituezan euren ikasteak. »

Beste izkuntzalari jakitun batek, M. Ferdinand Brunot' ek, ona emen zer dirauskun² :

« Zein da aintxiřnako ikasbidearen okerřtasuna? Gramatika zentzun-lege-dijari lotu nai izatea, lenengo beintzat; eta gramatika jakintzija erispidez eraltzekoa zala uste izatea. Gaur bafiz, edozeiřnek daki, gramatika, zentzun-leggedijarentzat ikasbide txatxara bada, zentzun-leggedijori berori be, gramatikiantzat maixu eskasa dana.... Aspal-diko izkuntz-jakintza-agerkun bafi eta aurferatu orok betiko ondatu ditue zentzun-leggeditiko azalpideok. Izkuntzia, gizarteko egikun edo agerkun bat da; beste gizarteko agerkun oro bezela, berori ere, len-aldi edo aldi igaroaren ondoren eta jaiokai bat baiřo ezta.... Izkera bat, dan bezelakoa zergaitik dan jakin nai ba-dogu, aldi igaroari eskatu azalpidea.... Izkeria, ezta aurfetijez eta naiřez asmauta erasortutako izakija : gramatika, ezta zentzun-leggedijaren irudija, zelan bear dan barik zelan dan ikusiz eraltzko jakintzija baiřo. »

Ardura aundiko gauzia dala, diřo jakitun ofek bero-

1. Dauzat, a. l. 2.

2. Brunot, *L'Enseignement de la langue française*, 48-51-52.

fek, jañaipide biojetatik zuzen ori lenengotik artzen ikastea, « bestela (diño berak) ikasleen gogoa edo adiña okertzeko afisku aundija dago; gramatika arazoetan, *ikusi* egiteko oiturearen ordez, *asmau* egitekoa artu, ta lenengo maileetan oker sartzen bada, nasai-nasai ta gorik andijenaz joango da bide okeñaren azkeneraño ».

Bardin diño M. Meillet jakitun-jakitunak ere ¹ :

« Aintxiñako gramatika orokañak (diño) merezi eban bezela, galdu dau bere ospe guztija, bere siñisgaritasun guztija, izkuntz-jakintziari zentzun-leggedija oker-oker ezarte bat baiño etzan bera-ta; jakintza onek eztau zentzun-leggedijaren mailakaz zer ikusirik. Izkuntz-jakintza bañijak bañiz, izkera oroen aldi orotako gora-beeretatik ataratako ikasti zeatz-zeatzen gain irasirik, eta beste jakintza eder eta askotan estalgetutako irakaskizunen argitasunez aberasturik, bañiztu ditu guztiz. lengo uste ta ikaspideok : izkera bakotxaren agerkun bakañai, izkera oro batera artuz ataratako legedija geitzen deutse. »

Bardin-bardin irakasten deuskue gaur eguneko beste izkuntzalari asko eta askok ere; oroen eretxiz, izkuntz-jakintzia, bizi berezkoia daben mundutar gauza geijenena legez, aztertu, begiratu eta agiri dana alantxe dala esanez eraldu dan eta eraldu bear dan jakintzia da. Eztogu bere izate-eria zentzunkeri eta ezetariko jakitunkerez nastau bear. Izkera bat gaur dan legez baiño ezagutzen ezpadogu, bere aintxiñako eria ezagutzeko bide agiri-agiririk ezpadogu, alpeñiko lana dogu lenago au leitekela edo ez leitekela eztabaidakerijetan jardutea; eta gorago ikusi dogunez, alpeñikoago oraindik, olan bear litzateke, eta alan jat atsegiñago, eta beste onetara da eñazoizkoagoka ekitea. Gure atsegintasunak, gure naijak, eztau ugezabatasunik izkeriaren gain; eta gure eñazoia ta zentzuna, izkeria zelan dan ikasteko dira, ez bera eraltzen, bañizatzen edo nai geunkeaneraltzen alpeñik jarduteko.....

Aintxiñako izkuntzalarijen beste lanik gogozkoeneta-

1. Meillet, *Leçon d'ouverture au Collège de France*, 24.

riko bat, itz-sorkun bila ibiltea zan : itz baten zustrai edo aztefenak zeintzuk ete-ziran bila ibiltea.

Oraingo izkuntzalarijak, jankintza-alde ofetan ere, beste orotan bezela, zufak, siñis-nekezak, atzeriak dira.

Eürontzako, itz-sorkun lanok (izkuntz-jakintziari jago-koezan orok bezela), indo-europatafean iturburua dabeen izkereetan dabe ekin-tokirik onena.

« Indo-europatafetikoko izkeraak (diño Gregoire' k) ¹ beste oro baiño érezago, aukerakoago, agertzen dira izkuntzalarijen azterketetarako. Euretariako askok, aintxiña-aintxiñatikoko idazkijak difuez eta euron bidez, garbi agertzen da, izkera ofeen aldi askotako izate-erea. »

Indo-europatafetikoko izkeraoen itz baten aztefenak bila-tzeko, iru izaki difuz bada izkuntzalarijak bere begijen afean : lenengo, itza bera; bigafen indo-europatar izkera orokafaren iztegija; irugafen, lengo bijoen bitarte aldiran bizi diran eta bizi izan diran indo-europatafetikoko beste izkera ezagutuen iztegijak.

Izaki ofeen argifasunez izan ezipalitz, gauza gaitza litza-tekean, barbarako, gaurko prantzetafen « o » (euskaldu-non « *ura* ») laterazko « *aqua* » tik datořela estalgetzea. Argifasun ofeen bidez bařiz, itz-sorkun siñiskaitz asko estalgetu dira : zustrai batetik sortu dirala, adibidez, laterazko « *solus* » eta persitafen « *haruva* » (guztia); beste batetik irlandafan « *il* » eta sanskritafan « *purus* » (asko, ugari); ingalandařan « *five* » (bost) eta krozitařan « *pet* »; ólandařan « *vader* » (aita) eta armenitafen « *hayr* »; armenitafen « *es* » (neu) eta kroazitařan « *ja* »; eta abar eta abar ².

Gaurko izkuntz-jakintziak, Europa geijena eta Asia' ko 150 miloe lagun bizi diran luřalde guztija estaltzen daben

1. Gregoire, a. l. 125.

2. Bibliothèque des sciences contemporaines. — *La Linguistique*, par Abel Novelacque. 17^o gn ofi-aldean.



sare andi, ta bere mailok milaka urteetako aldi luzean zear sartzen dituzan ofen bidez izan ezik, ez-eukean erez, ainbeste ta ainbeste itz-sorkun eta beste izkuntziari jago koezan ikaspide eder, egundo estalgetzerik.

Baiña, alan-da-guzti-be orok dau bere neufija, eta ikaspide ofeek ere bai. Indo-europatafetiko izkerazko itzoi euroi ere, jafaiñu leikeoe, bai, gorago esan dogun bezela mila, bi mila, iru mila, eta geijago urtez lenagoko euron aldakuntza ta joan-etofijak asalduaz eta estalgetuaz; baiña aintxiña-aldiofeek baiño lenago ta lenago ere gizonak ziran, eta eurok ere itz egin oi-eben; eta euron izkuntzok, gaur ezagutuak diran aintxiñakoenen guraso, buru eta zustrai izan ziran.

« Eromatiko irkereetan jakitun diranak (dirausku Dauzat'ek) ¹ argituko deuskuez izkera ofeek, latin-eritafearaño; gero latintar jakitunai eskuratuko deutsee argizuzija (aintxiñako ibiltarijak bezela). Baiña itzeen lenengo zustraijetaraño, ezta iñor elduko; czteutse iñok itzoi, euron lenengo erarik aurkituko; eurak baiño antxiñago besterik eztango zustraijetaraño, eztau iñok joko ».

Izkera ezagutuenen itz-sorkuntzia ere, orixe da bada; mila, bi mila, lau mila urte antxiñagoko aldijetaraño jo leike, euren zustraijak azalduz eta argituz, baiña aldi ofen ostean ilumpee amai-bakoa agiri da bañiro gure adin-begijen auñean.

Gure euskera onen ilunpee-aldi ori bañiz, askotaz onutzagokoa, oraintsuagokoa dogu : igarotako laureun-bostean urtez arutzagoko aldijetara ezkeru, bere itzaltasunik baltzenaz agertzen jaku.

Eta izkuntz-jakintziak berak dirausku, euskeriau bezelako izkera jatofí-estalduen itz-sorkun lanetan, zelako ardura andiz jardun bear dan. Aintxiñako izkuntzala-

1. Dauzat, a, l. 298.

rijak, guk euskera itz-sorkunok azaltzeko difugun bes-
teko gai urijak ere euren ikastjetarako naikoatzat oi-
zituela dirudi; euren itz-sorkun-jakintzia, etzan orain-
goa bezelakoa : oraingoa edestijaz, aldi-igarotako ager-
kaiez eraltzen da; zaañak, gai-agirijen ordez, zentzuna,
buru-lana, asmakizuna, eban lagun lan onetan ere. Ofet-
tariko itz-sorkuntziari buruz bañiz, ona emen Hovelacque
jakitunak¹ zer dirauskun :

« Itz-sorkuntzia, berenez, iruzurkeri bat baiño ezta; baiña, itz-sor-
kun-zalceen arerijorik gogofena, izkuntzalarija da. Itz batez itz-sor-
kuntzia, berenez eta beretzako, igarkuntzia baiño ezta; aztura ira-
katsijak eta gaitzasanak alboan itxi eta egi-antza baiño eztaben
gauzak, ezagutuztat emonez izten dau bere lana.....

« Erazioiaz esan oi-da (jaraitzen dau berak) itz-sorkunlarijak,
izkira edegijai jaramon andirik ez eta itxijai bapez.....

« Ez-gara nekatuko bañiro ta bañiro ere esaten : izkuntz-jakin-
tziak, eztau zer ikusirik, ez urfetik ez urifnetik, ofetariko asmokeri
eta igarkuntzakerijakin..... »

Hovelacque'k emen dirauskuna dirauskue beste izkun-
tzalari jakitun orok ere. Itz-sorkun-jakintziak, edesti-
bidez, bear dan goijetara eldu danean, berak erakusten
deusku garbi, argipide ofen laguntasun barik, orain,
naiz lenago asmautako eta onenentzat emon izan diran
itz-sorkunik geijenak, zelako makur eta egigeak izan oi-
diran.

¿Eta itz-sorkuntziaren eztalgekuntzaak, zer emendijo
egin oi-dabe izkera arazoetan? ¿Itz baten sorkuna estal-
getu dala-ta, itz ori lengotaratzeko beartuak ete-gagoz?
Itz batez, edozein itz edo izkerakik, aintxiñago izan eu-
kean eria, oraingoa baiño obetzat, lotsa geijagogariz-
kotzat artu bear dogu?

Itz-sorkuntziaren estalgekuntzaak, balijo andikoak dira
izkuntz-jakintziarentzako, baiña eztabe zer-egin aundirik,

1. Hovelacque; a. l. 16 eta 20 garfen orf-aldeetan.

gertakun bakanen baten izan ezik, izkera bat landu eta zaintzeko. Aintxiñako itzok, izkera-erakijok, euren aldi-jan bizi izateko eben eskubide bardiña dabe, oraingook ere, orain bizi izateko. Aintxiñako izkerakijak, oraingook baiño lenagokoak dirala-ta beste barik, eztabe lotsa geijago merezi; lengo eraki zaafrak ere, eurak baiño lenagoko beste batzuen kumak izan ziran iñoiz, ta gaurko eraki bafiztuok ere, noiz-bait geroagokoen guraso izateko dira.

« Erāzoiaz-da, izkeraak eztabela adiñik esan oi-da » (idazten dau Gregoire'k¹.)

« Itza (diño Thomas deritxon izkuntzalari argijak²), ezta aldi-jaz eta tokijaz zer-ikusirik eztaben gauza berezija; itz bat, toki baten eta besteetan, orain eta leenago izan dituan era oro pilakatuta ikusi nai-izan oi-dogu lenengo; gero, aintxiñaagoko edo auzoetako izkeraren baten, era oro ofeen ifurburu edo zustraija aurkitu arte, eztoгу amaitzen geure lana.....

« Itz-sorkuna, gizartean ebagitēn dogun bifarte aundi eta sakon urñāgotu eziñik izten dogun bat da. »

« Izkeria (diño Henry jakitunak ere³). Beti ta beti da gazte, itz egitēn daben lagun bakotxak, auznartu, asmau eta irazan egin oi-dau bañiro-ta..... Izkera bat, gizaldi batetik bestera aldatu daiteke : aberastu, txirotu, zeaztu, ilundu daiteke; baiña ezin leiteke berezi, ez bera eraltzen dan umetza-arorik, ez geldi egon oi-dan eldute-arorik, ez itxurabakotzen dan zaartzarorik. »

Izkeriaren aldi-oroetako erakijak, lotsa bardiña merezi dabe bada; aldi bakotxean, orduantxe daben erea da nagosi, ugezaba, bere buruaren jaube.

Au olan aitzen dabe gaur eguneko izkera-zain orok. Aor difugu, adibidez, bifaitatutako indo-europatarētiko izkeraok; euron jatoñi gora-beraok, gure euskeriareneen aldean miña bidar ezagunagoak izan afen, euron zaintzaileak eztabe izkeraok lengoetaratzeko asmo zentzun-

1. Gregoire, a. l. 96.

2. Thomas, *Nouveaux essais de philologie française*, 3.

3. V. Henry, *Antinomies linguistiques*, 12.

bakorik izan bear dabenik ere uste izaten. Au euskaltzaleon gaitza da bakañik. Geure izkera au, bakarti ta jatofi estali-estaliz agertzen jakunez gero, iñoiz jatofi ofen zirkiluren bat ustez idigi dogula ta, zirkilu ofetatik, itz edo eraki zaar itxurazkoren bat edo beste argitaratzen jakuncan, ixil-mixilltasunezko usaiñez inguratutako izaki soragariren batzuk dirala begiñantzen jaku, eta eurentzako, gure izkera onen jar-lekurik gorengoak ere, beeregikotzat esten ditugu, naiz-da, jarleku ori eurentzako utsiñuteko, beste eraki edo otz ezagutu eta zustrai sendoz euskeriaren landan erne, azi ta loratuta legokezaren batzuk euron lekuetatik uxatu, baztatu eta uñdu egin bear izan.....

Antxiñako izkuntzalarajak, euren itxorkun-ikastijaz nasi erabili oi-zituen beste gai gogoenetariko bat, izkuntziaren sortueria zan, eta bestea, itz-ots eta izkijen eurenzko ikurpen edo esan-gurea.

Gure Astarloa ospatsuak ere, len aiaturiko liburuan, autu ofeexeri ekin eutsen gogor. Oraingo izkuntzalarajak bañiz, gaurko izkuntz-jakintzia ainbesteko argiñasunez agertzen dan añen, autu ofeek, alpeñikotzat edo lortu-eziñezkotzat, bertan-bera izten diñue.

« Izkuntziaren sortueria (diño Gregoire'k¹) bestetara irudi añen, ezta gaurko izkuntzalarijai burua nekatzen deuten autua. Badakije eukok, autuori (uste bako gertakunen baten bidez izan ezik beintzat) ebatsi eziñezkoa dana-la. »

« Miña zortzireun eta irurogetamar gañen urte inguruetan (diño Dauzat jakitunak²) filosofi-azterketak bertanbera izteko, geroago ta gogo andijagoa agertzen da, izkuntzalarijen artean. Eretsikizun zabalgegijak eta erabagikizun bizkoñegijak aintzat ez artzeko gogoia. Izkuntziaren lenengo azteñen edo sortuerearen bila, ezin lortu leiken arlo bateri ekifiko alpeñiko lan asko egin zala konturatu ziran, aldi aretako izkuntzalarajak..... »

« Gaiñera, izkuntzia, lenago uste izan zan baiño askoz zaarago

1. Gregoire, a. l. 136.

2. Dauzat, a. l. 157.

zala ikusi eben eurak, eta lenengotiko zustraijok, eurok baiño arutzago besterik etzalakook aurkitzen ibilte ori, alperiko lana zala. Indo-europatar izkera orokara bera ere, gerokoen asieratzat, gurasotzat artzen zan bezela, bera baiño antxiñago ta antxiñagoko beste askoen azkenengo milatzat ere, bardin artu bear zala. »

Lenengo izkeriaren bilatzaileak, itz-otseen ustezko ikurpen edo esan-gurea artu oi-eben, safi, argi-bidetzat. Ofi buruz ere, ona emen, Gregoire'k zer dirauskun¹ :

« Itz-otseen eta ikurpeneen artean (diño) ba-ete-da alkarkidetasunik? Lagun askok alan uste izan dabe len eta orain ere, baiña uste ori, ikusbijo bat, oker-ikuste bat baiño ezta. »

Zarata-itz banaka batzuk baiño ez-ei-dabe alkarkidetasun ori; eta eurok ere, geijenetan, izkera batzuetan era batera eta beste batzuetan beste batera.....

Gaurko izkuntz-jakintziak erakusten deuskuzan gauza oargarijetatik beste bat, ufengo auxe da : Izkeraak, euren aintxiñaldijetan zituen gramatika-eraki asko ta asko, apur-apurka galdu egin dituela ta egiten dituela : gaurko izkeraok baiño euren aintxiñako gurasoak, gramatikaz, aberatzago zirala.

« Jakin-erazo bear dau izkuntzalaririk (dirausku Gregoire'k²) izkeraak geroago ta ezezagotzen ari dirala, euren eraki eta adi-erazoki ugarijegijak, gitxitu ta ulertze-ezezagotzen : latin izkerearen sei itz-jokatze-erak, bere aditzaren ainbeste ta ainbeste amaitze-erak, guztiz urituta agertzen dira prantzeera eta beste eromatiko izkera oroetan. Jermanitar izkeraak ere, bardin biraldu dira. »

Ingelandereak, bere aiña-aiña indo-europatar eta aiña jermanitar izkera gramatikeen aztefen guztijak galdu lenengo, ta gero, oraintsu ere, bere gramatika barijaren erakirik asko, galdu dau bafiro.

Beste indo-europatarfetiko izkera taldeai ere bardin gertau jake. Gaur bizi direan indo-europatarfetiko izke-

1. Gregoire, a. l. 51.

2. Gregoire, a. l. 10.

reetatik gitxien galdu dabena lituanitarfena da; baiña beronek ere, indo-europatár aditzaren aldi-era batzuk aaztu diñu. Gaurko grezitar izkerearen gramatikak ezta aintxiñakoen itz-agerkun eta beste era askotako aberas-kirik; idatz-izkeriak baiño efi-izkeriak gitxiago oindiño.

Indo-europatáfetiko izkereetatik urten eta beste edozein lege-erazkoetara jo badagigu ere, bardin ikusi dagigu.

Indo-europatáfetiko izkeratzaiaren ufengo ezagunena, semitáfetikoa da, gaurko izkuntz-jakintziarentzat; eta beronek irakasten deuskunez, semitáfetiko izkeraok ere, aintxiña, aberatzago ziran gramatikaz, gaur baño.

M. Frederic Muller'ek diñonez¹ semitáfen izkera nagosi edo orokáfak, aditza, amabost *ustekai*-eratara jokatu zeikean; baiña gaur ezagutzen diran semitáfetiko izkera batek ere ez ei-diñu zaindu amabost eraok; askok, banaka batzuk galdu diñuez : beste askok, geijenak.

Hovelacque'k diñonez bañiz² semitar izkera nagosijak, iru itz-jokatze-era ei-zituan, baiña bertatik sortu diran beste izkera orok (arabitarfenak izan ezik) galdu ei-diñuez geijenok. Arabitarfok eurok ere, efi-izkeraz diarduenean, ez ei-diñuez erabilten iru itz-jokatze-era oetatik bat ere, idatz-izkeraan baiño ez ei-dira bizi-ta.

« Andikeri eta putzkeri iñgaríja litzate arabitarfen artean (diño berak) efi-izkeraz itz-jokatze-eraok, benetan erabillea. »

Uñiñago joan barik, geure euskera onetan berton ere, ezagutua dabene edesti laburaren neufíjan, ikusten ditugu era ofeetako edo antzeko galtzejak.

Or daukagu, alde batez, -EAN edo -REAN aintxiñako bizkaitáfen atzizkija, *aizea poparean* (*viento en popa*) edo antzeko esakun bakanen baten izan ezik, iñon bizitza antzik agertzen eztabela, zeatz galduta.

1. Muller, *Der verbaldruck in semitischen sprachkreise*, 527.

2. Hovelacque, a. l. 210.

-GAZ eta -KIN atzizkijak ere, aintxiñatik galdu eben, bizkaieraz, euren benetako bardingetasuna, bakoitztasuna.

Euskal-aditzari buruz ere, ona emen zer dirauskun Bonaparte euskal-zale ospatsuak¹ :

« Mendetasun bikoitzezko amaikijak, (dirausku) mendetasun zuzena, nagosija, irugañon lagunean baiño ezin eroan leikee; baiña ori ezta beti olan gertatu... Gaurko euskal-aditzak, ikaragarizko aberatza dala, alan-da-guzti-ere, galduak ditu, bere iru amaikijetatik bat, gitxi-gora-bera. »

Bonaparte'k-diñozan aditz erakijok, Astarloak ere, bere gizaldijan, Bizkai'ko euskeraan bizi zirangotzat agertu zituan « Discursos filosóficos » deritxon bere liburuan. Gaur bañiz, eztoгу entzuten Bizkai'jan « *bere aul'era eroango zautsodaz* » eta antzeko esakunik; « *zautsodaz, nautsozu* » ta antzeko aditz-erakijok bada, Astarloa bizi izan zan aldijaz gero galdu dira, antza, Bizkai'jan : lecnago beste euskal-izkelkijetan atzen ziran bezela.

Agertu ditugun galtzeijok, gramatika-eraki ilteok, benetan txirotu, beeratu, alpefik-galdu egiten cte-dabe izkeria ?

Oraintsurarteko izkuntzalarijak, alan uste izaten eben. Hovelacque'k² diñonez, grezitar batzuk, euren aintxiñako izkeriari edeñago eretxirik, berbiztu egin nai-izan ei-eben. Sorakerizkotzat esten dau, berofek, grezitañen asmo-ezin-iritxizko ori. Itali'ar gramatikalari batzuk ere, jardun ei-eben, latiñezko seiizen-jokatze-erak bañiro euron-izkuntzaratu bear zituezala-ta.

Gaurko izkuntzalarijak, beste eretxi bateko dira. Izke-raak alde batetik galtzen dabeena, beste batetik irabazi oi-dabe, ta geijenetan bide gaitzak utzi ta eñezagoak artuaz.

1. Bonaparte, *Le verbe basque*, 83.

2. Hovelacque, a. l. 296.

« Oargarija da (diño Dauzat'ek¹) prantzeera eta ingalanderatan gertatu oi-dana; eurok, izkera oroetatik biraldatuena izanik, itz-joskera bidez ordeztan ditue itz-amaiki galtzeak izten deutseezan utsunea..... »

Eta au eztala oraingoa bakafik, diño berak « Gaur prantzeereak eta ingalandereak (diño) aditz-jokatze-amaikijak galdu ta euron ordeztan, aditz-erakijai, izen-ordeak ezarten deutseezanean, grezitafen lenengo izkera zaafari jaraitu baiño ezteutsoe egiten : arako aintxiñako izkera ofen *dido-mi*, *dido-si*, *dido-li*, eta abaferi. Izkeraok (jaraitzen dau) bira-osoztan aldakuntz bidetik doazenen beste irargi eta agerkai bafi bat baiño ezta ori ere. Izkeria, bizitzia bezela, betiko-ta-betiko beñizketa uts-utsa da. »

Gregoire'k diñonez², iskereen aldakuntzaak kaltegarizkotzat esten zituenen usteztan, izkeraok, gaixo txar batek jota bezela ei-ziran.

« Izkeraoi ezari oi-jakoezen aldakuntzok (diño) laisteragoko edo geroagoko euren makurtze-aldijaren iragarkijak ziran. »

« Izkuntz-jakintzia erazan edo sortu eben jakitunak eurak ere (Fr. Bopp. W. von Humbolt eta abar) eretxi ofetako ziran. Berau, uste okera, makuia izan afen, ezta miresteko iskuntz-jakintziaren aste-aldijetan ontzat ibiltea. Aldi ofetan, indo-europatar iskereen lenengo izate-erearen bila ebiltzazan izkuntzalarijak, oraintsuko izkera bafijen auzez-aur latin, grezitar eta batez ere, sanskrit-izkera imiñia; azkenengo izkeraok, oraingoen aldean, askoz ere beteago, osoago, aberatzago aurkitzen zituen, gramatika erakiz; eurotan, aintxiñagoko eta gero galdu ziran bardintasun eta zuzentasunen agerkaijak agiri zirala uste izan eben. Uste onen erereduz, oraingo izkeraok, aldazka edo adar-igertu eta endekatu balzuk baiño eztera. »

« Ondo itz-egin-da (diño Gregoire'k berak) guzuzeko litzate lenengoz, aintxiñako izkeraok gaurkook baiño geldikoiago, bardin-igarokoiago izan zirala uste izatea..... »

« Eta bigarenez izkera-aldakuntzia, jauste-agerkaintzat, makurkeritzat, ezta artu bear; aldakuntziak ezta beti itxurabakotzea ezan nai-ta. Safi-ta-safi, aldakuntzaok, bafiztatzeok, izkera argijagotu eta ezezagotu egin oi-dabe : prantzeereak, asko irabazi dau, latiferea astuntzen eben gramatika-gaitzatasunak bertan-bera utzi-ta; inge-

1. Dauzat, a. l. 224.

2. Gregoire, a. l. 56.

landaŕen izkerea ere, bere guraso jermaniŕar zaaŕaren gramatika-eraki guztijak galdu dituan aŕen, izkerarik erabilŕe-eŕezenetarikotzat euki oi-da.

« Ez-litzate ondo bada, izkereen aintxiŕa-aldija, euren loratze osoa ikusi daben uŕezko adintzat artzea ; eta geroko gizaldijok, euren beti berutz eta berutzko aldizat. Izkuntzia, gizon-almenaren ondoren bat baiŕo ezta, eta ezin zeŕtekean bizi, gizonak ikututako gauza orok jasan oi-dabean gerakaitzasŕn, ezin-egontasun agiri-agirikoak jo barik. »

Agiri danez, bada, izkera gazte orok oŕetara jo dabeela dirudi. Eŕeztasuna ta garbitasun edo aŕtukortasunaren ordez, galdu ditue pozik euren gurasoen edertasunak zirala ta aintxiŕako izkuntzalarijak maŕte-maŕte ziŕuezan erakirik asko.

Euskerazko aditzak ere, bide egin dabela esan lei aspal-dijon, eŕeztu, eta bide-batez, garbijago, aŕlukoŕagoko auŕerakuntza oŕetan, irabazpide oŕetan. Leenago, euren ez, osoka jokutzen eben aditz askok, orain aditz-laguntzaile bidez, zatika, atalka, jokutzen dabe. Geuk ere, euskaltzaleok ere, makurkerizat esten izan dogu safi, eŕezpide ori, atalkatze ori ; baiŕa baliŕeke, euskerearentzat, makurkerijaren ordez, auŕerapide onurakoŕa izatea, amar-amabi aditz izan ezik beste oro laguntzaile bidez jokatu-erazoteko orain agertzen daben gogo ori.

Euskeriaren aditzak, bádau aŕtatu bear dogun beste agertze-alde bat ere ; gauza andizat beti euki oi-doguna berau, baiŕa izkuntz-jakintziak irakasten dauskunari ondo begiratu ezkeru, ezta ezpai-bakoa aundiŕasun ori, aberastasun ori. Ona emen zein dan : Adi-bidez erdal-dunak era bat-bakafez esan oi-daben esakun au :

« Ha venido »

euskeraz lau eratara esan giŕŕaŕke :

Etoŕi da

Etoŕi dok

Etoñ don
Etoñ dozu

Ugaritasun onek gure izkera oni zer onura ekañ lei-
keon, eztakigu. Izkerea *bidekaitzat* baiño (bear ezlanez)
azkenkaitzat, *elburukaitzat* geijago artu ezik, eztogu ikusten,
ugaritasun ofen onurarik; kalteak bai, bañiz : lenengo,
euskerea ikaskaitz egitea; bigañen, euskalkijak, alkañen-
gandik uruntzea; era ofetako aditz erakijak dabe, euskeraz,
izkelki batetik bestera, alderik andijena-ta.

Eztaigun geure izkera au alpeñiko, aditzaren naiz beste
edozein gramatika-erakiz josita eukifen alegin lafegikorik
egin, ori ezta beti aberastasuna, kaltetasuna baiño-ta.
Eñi-izkerek, olako aberastasunok aaztuteko gogoia agertu
badagi, ezteigun, idatz izkeriaz, bestetara joteko garik
izan.

« Izkeriaren bere-bere baljoa (diño Gregoirek)¹ itz-amaikijen
ugaritasunez edo uritasunez ezta neurtu bear. Ingelandereak eta
prantzereak euren itz-amaiki uritasuna gora-bera, ezteutse iñori
zoñik, ez argitasunean ez txukuntasunean. »

Oraingo izkera gazteok (españar, prantzetar, ingelandar,
doistar eta abar) euron gramatika-eraki galtze ofeeri,
itzak ugarituz, iztegiak andituz eta aberastuz erantzuten
deutse ondoen eta garaitzatsuen.

Erakuspide txiki batez azalduko dogu ordeztze ori :

Euskeraz, adibidez, *zegaitilasuna* adi-erazoteko, atzizki bi
ei-ditugu; bata, *erazo-zegaitijentzako* : -GAITIK atzizkija
(*neugaitik*, *añtagaitik*); bestea, *elburu-zegaitijentzako* : -AREN
atzizkija (*zeruratzearen*, *Jangoikoaren*).

Españerazko gramatikiak, gure atzizki bi ofeen ordez,
eztau afe-itza bat baiño : POR afe-itza (*por mi*, *por el
padre* erazokitzat, *por ir al cielo*, *por Dios*, *elburukitzat*).

1. Gregoire, 20.

Gramatikaz, euskaldunok aberatzago gara bada, izkera-alde ofetan, erdaldunok baiño.

Baiña espaneak, zegaititasun aldeok zeatz asaldunai dituean, bere gramatikaren txirotasun ori alboratzeko, joten dau bere iztegi aberatz-aberatzera : aurkitzen ditu, zegaititasunari jagokozan itz-ugari eta era-erazkoak, eta euren bidez, gure atzizki biijoen orde, eraltzen ditu edozenbat esakuntxu, bata baiño besteak garbijago eta zeatzago bakotzak bere ikurpen berarizko eta bardingea azaltzen dabeenak. Esakuntxu ofeek ufengoon antzekoak dira : Gure -GAITIK atzizkijaren ordeko :

- « Con motivo de » edo « por el motivo..... »
- « A consecuencia de » edo « por consecuencia..... »
- « Por consiguiente » edo « de consiguiente..... »
- « A causa de » edo « por causa del..... »
- « En efecto » « al efecto de » edo « por efecto de..... »

eta abar.

Eta gure -AREN atzizkija ordeztzeko, ufengoxeok :

- « A fin de » edo « con el fin de..... »
- « Al objeto de » edo « con el objeto de..... »

eta abar, eta abar.

Era ofetaraxe ezez eta zeatz garaipezen dabe oraingo izkera *atalzkarijok* aintxiñagoko *osozkarijen* gramatika-aberastasuna.

Gaurko izkeraak, iztegija aberatza, orixe bai, agertzen dabe; ¿euren aberastasun ori nundik lortu daben?; zelan jaritxi daben? Ori ezteutse ardura; eurok, euron itz ugarijen bidez, ederto adi-erazo oi-ditue, gogoaren sokondoraiñoko uste, gogapen, oldozpen eta eretxi oro, zeatz, txukun eta ezez, eta ofexegaz amaitzen dabe euren zeregiña.

« Izkereen zeregiña (diño Gregoire'k) ¹ gizonai alkar-aitu-erazoten

1. Gregoire, a. l. 142.

laguntzea da, eta euren balioa, zer-egin ori ondo, betetzeaz neurtzen da. Izkera batek zenbat eta érezago, argijago ta aitu-erazokorago dan bera, ta ainbat egokijago bete daike bere gizon-alkartze-lana. »

Iztegi aberatsa dabe, bai, ta ez besterik, oraingo izkera nagositzat artu oi-dirianok; eta alan-da-guzti-ere egunero ta egunero geitu, bañiztu eta ugariu egin beafean aurkitzen dira; alan-da-guzti-ere eriskijak baiño atzeraago dabiltz itzok. Munduon, agiri diran gauzak naiz burugauzak, adiñeko gauzak, beti bañiztuten diardue aúfetik, eta atzetik euron ikurpeneko itzak.

Ementxe dogu bada, gaurko izkereen bizitziari indaíik andijenez, ardurarik geijenez, jagokon arazoa. Ikusi daiguzan bada gai oni buruzko izkuntz jakintziaren irakaspede batzuk.

¿Zelan atonduten dira (diñogu bañiro) oraingo izkera goiik dabiltzanok, ainbeste gauza bañiri, eriski bañiri, itz egokijak ezarten?

« Izkera bakotxak (idazten dau Dauzat' ek)¹ alde ta toki askotatiko gei ugarijak crakañi oi-ditu bere iztegiara..... »

Ikusi daiguzan ezagunenak diran oretariko etorpede batzutariko itz motak :

Lenengo-lenengo, zarata-itzak aítatu oi-deuskuez izkuntzalarajak : gure *tangada*, *zaplateko*, *kiñi-kiñi*, *brintzatu* eta antzekoak.

Bigañen, izki bat birítan esanez eraldutako itzak : *txotxo*, *lili*, *kokolo*, *baba* eta abar. Onetariko asko, umeizkeran ditu euskereak : *nene* (esnea), *mama* (ura), *koko* (afautzea) eta abar.

Irugañen, itz bat birítan esanez (geijenetan bigañenez zerbait aldatzen dala) eraltzen diranak : *zuñu-muñu*, *ziri-miri*, *ziri-boño*, *ziri-mara* eta abar.

Laugañena, bi, iru edo lau itzen lenengo izkiraz eral-

1. Dauzat, a. l. 301.

dutakoak : ořetara sortu da euskeraz oraintsungo EUGABI itza.

Boskafen, ikurpena aldatuzkoak : *goru* (erderazko *cetru*), *burutxa* (erderazko *azucarillo*)¹, liburuaren *orija*, ořatzaren *begija*, aizkoriaren *agoa* eta abar. Itz askok dabe onetariko sortzeeria.

Baiña itz bafijak sortzeko biderik ugari ta ederenak uřengo bijok dira :

Seigafen, itz bigaz bat egitea : *esku-makila*, *gatz-ontzi*, *ebagi-bedar*, *artu-emonak*, *txakur-amesak*, *kukuřuku-estula* eta abar, eta abar. Bide orixe dala diño Dauzat'ek jermanitar izkereen aberastasun aundija; ingelandar eta alemanitarak batez ere, ija zelan-nai eraldu ei-leikeez ořetariko itz bikoitzok². Gure euskera onek ere, jermanitar izkeraok bezela, orixe dau iztegija aberastuteko biderik ugari, eder eta batez ere garbi ta zeatzena, gure ustez beintzat.

Zazpigafen, izkijen bidez, itz batetik beste bat erakartea. Onetariko itzok ere ugari ditugu euskaldunok : *agor* itzetik *agorte*, *agortu*: *gaixo*'tik *gaixoti*, *gaixotu*; *goiz*'etik *goiztar*; *on*'etik : *ondasun*, *ondu*, *ondo* (*ongi* ala *ontsa*) eta abar.

Izkeraak euren iztegija aberastuteko badabe beste ituri ugari-ugari bat ere.

« Izkeria (diño Dauzat-ek)³ ezta bere baruko gaijez bakařik barizatzen. Izkeriak saři artu oi-deutsee alkařeri gairik asko. »

Eta egija da; eztago izkuntz-jakintziari jagokon gaurguneko edozein liburu irakuri baiño eta alde guztijetatik orixe agiri da : itzai buruz, atan-ere, izkeraak, naiz alkařen antzeko dirala naiz ez-antzeko, sendi edo pilo

1. Gernika-aldean entzun ditugu, iñoiz.

2. Dauzat, a. l. 81.

3. Dauzat, a. l. 102.

bateko naiz ezetariko senidetasunik eztaben arteko, orok, artu ta emon egiñen deutse alkaferi itz ugari.

Or ditugu Europa' tik urten barik, ingelandañen izkeria, jermanitaña izan añen, pantzetar itzez josita; aor efumanitañena ere, Eróma' tikoia izan añen, eslabitar eta maxiañen izkera itzez beteta; maxiañenau berau ere bardin, turkijar, eslabitar, eta alemanitañetikoko itzez jantzita; bardin serbi-kroazitañak ere, euren izkeria turkijar, alemanitar eta pantzetañenetiko itzez aberastuta bizi dabe; bulgariña bariñ turkijar, grezitar, albanitar eta efumanitañetikoz josita; albanitañenau berau ere, latin, grezitar, eslabitar, turkijar et beste batzuen izkereetatiko itzez; eta olantxe beste izkera oro ere¹.

« Erderatiko itzok (diño Dauzat' ek)² izkera batzuetan askoz dira geijago beste batzuetan baiño, euren edestijaren gertakunetan dago orñen gora-beria-ta. Izkera oraintañoen artean, ingalandañena da nagosi orñetan, eta eromatikoetatik, efumanitaña; berau, maxiar eta eslabitar izkelkijen erdijan esitula agertzen da, ta jakiña, eurok ezarte andijak egin deutsoez. Baiña, alde orotan, bariztatzen ari-diran erderatiko itzen bidez eta itz-barijen bidez, apur apurka, ezebezean geratzen dira aintxiñako iztegi oro. Erómatañetikoko izkereetatik gaur garbijen agertzen dana italiña da; bada izkera onetan ere, grezitar eta beste erderatiko itzak beraganatu baiño lenagoko latin-izkera utsezko itzak (Ennius' en gizaldikoak) ondo pilo txikija egiten dabe. Bardin ingalandañen izkeran ere eta alemanitañenean bertan ere bai : jermanitar garbiko itz-zustraijak, gitxientzuk dira euroetan. »

¿Eta zelan erbestetaratu oi-dira itzok?

« Erderatiko itzak (diño M. Meillet' ek, eta egi sakon-sakona da berau) izkera berezi bidez sartu oi-dira izkereetan. Izkera berezijak (itxaz-gizon, musikalari, mediku, jostun, eta beste langile orotarikok euren artean erabili oi-dituen izkera berezijak) artzen dituez lenengo erbesteetan sortu izan diran eta euren baktxaren lan edo jakintziari jagokoezan gauzen eta eriskijen erdel-itzak, eta gero izkera orokañera zabaltzen dira eurok³. »

1. Hovelacque, a. 1.
2. Dauzat, a. l. 107.
3. Dauzat, a. l. 108.

Euskaldun itxaz-gizonak ekañi ditue euskerara erderatiko *fleila* (*flete*), *txilin* (*chelin*), *kontra-maixu*, *marmitoi*, *pilitxu* (*piloto*) eta abar; gure erijetako jostun edo *modistak* lau euskaltzaindik garbitu leikeezan baiño erderatiko itz geijago ezarten deutsee egunero gure emakumeen euskeriari.

Eta ofetarikoxea da izkera-biziltziaren izate, arnasa eta aixea; eta ofetariko aixeetatik landaz, kanpoz, ezta bizi munduon izkerarik.

« Izkera besezi bide ofez (diño Dauzat'ek ¹) ikasi zituen grezitarak, fenizitarren itxaso-itzak, eta gero irakatsi ofomatarai. Eskandinabitaragandik artu zituan, Normandi itxastar erijak, edozenbat itz; eta azkenengookandik prantzeitarak, beronen izkeriaren itxaso-itz geijenak. Guda-itzai buruz ere bardin : ofomataragandik artu zituan jermanitarak, guda-eskolia ta ainbat guda-itz. Barbaritarak irakatsi eutseen prantzitar, españatar eta italiañai, ainbat guda-itz. Elizitzeen zabaltzailea, latin izkeria izan da; berak zabaldu zituan ofetariko itzok, ez bere semeen artean bakañik, baiña grezitar eta jermanitar izkeretan ere. »

Eta bardin gertatu da ta gertatzen da jangai, jantzigai, jolasgai eta beste gai orotako itzai buruz ere.

« Erderatiko itzoen artu-emonak (diño Dauzat'ek baiñero ere) ² gizarteko artu-emonak sortzen dau. Gauza bat saldu oi-danean, bera egin daben tokijetako izena eroan oi-dau aldean sañi... : amaseigaren eun-urtekoan sartu ziran Itali-erititik Pantze-erira, urengo gauzok eta euron izenok ; *baldaquin*, *balustrade*, *caleçon*, *camée*, *camisote*, *capote*, *casaque*, eta abar; urengook gerotxoago Arabi-eritik : *alcali*, *alcool*, *borax*, *julep*, *sirop*... Europa guztijak (diño) ekañi ditu Ameriketatik *tabako* itza ta bedaña; bardin Malasi'tik *tee* a ere. »

Tabako ameriketatiko itzori Europa'ko izkera orok artu dabela diño Dauzat'ek, eta egija da; gure gurasoak ere *tabako*'tik *tabakoñi* itz poliña eraldu eben; baiña ez Dauzat'eri, ez gure gurasoai ez iñori, egundo burura etofi etxakoena, ikusi dogu oraintsu : *tabako* itz ori,

1. Dauzat, a. l. 108-109.

2. Dauzat, a. l. 104.

Europa guztijak kezka barik euren izkereetaratu daben ofen kaltez, geuk, oraingo euskaldunok bakañik asmau dogu geure garbizaleegitiko kezka ori, eta itz ezagutu ofen ordez *erpedar*, sartu nai izan dogu geure euske-
raan.....!

Ezteijogun guk ere geure izkera oneri bestek eureneri iminten ezteutsen eragozpenik imini; eztaiguzan geure iztegirako atok beste izkereenok baiño estuago, itxijago imini; ezteijoegun geure izkera onen birijai beste izkera orok aoa betez artzen daben arnasia ukatu.

Eta iztegi-aberaspide ori iñok ez bestean guk euskaldunok ¿zer dala-ta ezetsi nai izan oi-dogu? Uste oker bat dogu euskaldunok iñok baiño bafurago sartuta. Geure euskera bakarti onek, erderatiko itzez jantzi ezkerero, beronen nortasuna, norberatasuna galtzen dabela uste izan oi-dogu. Eta au ezta egija; ezteuskue beintzat ori irakasten gaur-eguneko izkuntzalarijak.

« Gramatikiak (diño Renan'ek) ¹ emon oi-deutso izkeriari bere nobertasuna. »

« Ingelandañen izkeria (dirausku Hovelacque'k ere) ² ainbeste-ainbeste erbestetariko itzez eta erakiz josita egon añen (pantzetarikoz geijen) ezta orain, eta ezta izango ere iñoiz il daiten arte, benetako izkera jermanitaña baiño; euskerialaz (jafaitzen dau berak) gauza antzekoa gertatzen da : berau, eromatañetik izkereetatik edozenbat erderaki artu ta beronentzakotuta bizi añen, eztautso orék iñoiz ere zirkiñik eragin, eta eragingo ere, izkera onen izate berezi eta bestez zer-ikusirik-ezkoari. »

Berberak auxe diño geroago, anamitañen izkeriari buruz ³ :

« Anamitañen izkeriak... txiñatañenetik itz asko bereganatu diñua-lako, askok, izkera bijok senide ete-diran uste izan dabe. Izkera batek beste batetik artu diñuan itzeen gitxi-askotasunak, ezta zer-ikusirik bere bañuko izate-eriaz, bere benetako zustrajeezaz; eurok,

1. Renan, V liburua, II buru-atala.
2. Hovelacque, a. l. 10.
3. Hovelacque, a. l. 53.

zustrai garbijok, anamitar izkera orék, dituan baiño gitxiago-ta-gitxiago balitu ere, naikoa litzatez bere nortasun edo norbaitasun berezija eragertzeko. »

Eta bardin idazten dau beste izkera askori jagokonez ere. Gaiñera izkereen artu-emonori, itz-truke ori, giza-auferakuntziak gura-nai-ez, aldean dakañen gauzia dala diño¹, ta eragotzi eziñezko ondorena.

Azkenengo auxe diño gitxi-gora-bera Gregoire'k ere² :

« Gaur-eguncan (diño) mundu guztiko erijen alkañekiko artu-emonak, geroago ta edatuagoz, zabalduagoz doazen ezkeru, iztegijen aldatze eta erderatiko-itzeztuteok, geituz-ta-geituz joango dira, garbizaleen eta erizalekeri itxuegiz jotakoen ekiñai gora-bera..... »

« Gomutau daiguzan (diño berak goratxuago)³ gaur-eguneko izkuntz-jakintziaz batera doiazan eta jas zoñotzez Fenelon jakitunak azaldutako urango itzok; izkeltzaiñen arazoai buruzko bere karta baten idazten ditu eurok : « Ingelandatañak (ei-diño Fenelon'ek) « egoki jatorkoen itzik eztabe bazartzen iñoiz ere : eurak, albo-erijetan arapetan diñuezan itz-oro eurentzakotu oi-ditue. Oñetariko lapuñetak eragotzi bakoak dira. Gai oreri buruz guztija da orotaña « oikuntza edo oitura bide utsez..... Itzak eurenenez, sancuñirik ezta « been ots-utsak dira. Eurok, emote-erijenenak beste dira artze-erijenenak « ere, bijoenak bardin..... »

Eztaiguzan bada euskaltzaleok, gaurko izkuntzalarijoen irakatsijok ezetsi eta baztertu. Ezteigun geure euskera au (diñogu bañiro ere) beste izkerarik imini oi-eztan bide estu eta gaitzetan sartu; eztaigun geure izkera mañte one-gaz, izkuntz-jakintziak irakasten deuskuenez bestera jokatu, eztago beronen osasuna bestek-ez-lako joko añis-kugarijetarako-ta. Mañte izan daigun, bai, geure izkera laztanau, beronen edertasuna, beronen garbitasun albesterañokoa; baiña ez mañtetasun itxuz. Gorago ere esan dogun bezela, mañtetasun itxuegija, safi, mañte dogun gauzearentzat laguntasunaren ordez eragozpena izan oi-da-ta, mesedearen ordez kaltea.

1. Hovelacque, a. l. 10.

2. Gregoire, a. l. 148.

3. Gregoire, a. l. 148.

Maiñetasun benetakoak, obe dogula dirausku geure euskera au, ingelandañen izkeria bezela erderatiko itzez burutik eta oiñetara joñita, baiña osasun sendoz bizirik ikusi, latin izkeria bezela eder eta txukun baiña ilda aurkitu baiño.

Hugo Schuchardt izkuntzalari ospetsu-ospetsuak dirausku ¹ :

« Euskeria, Erñoma-aldija baiño zan bezelako (erderelatik ezer beraganatu barik) jañaitu izan baleu, ez zeñekeala, geroagoko aldijetan, bizi al izan. »

Schuchardt'en itzoi, guzur aundi barik, beste ufengook geitu geinkeozala uste dogu :

« Euskeria, gaur, erdel-izkerelatik ezetariko iguin barik, itz ugari ta ugari artuta ezipalitz, toki askotan, uri nagositxuetan atañbe, aurkitzen dan baiño askoz ere bazartuago legokela. »

Erñijak zelakoak diran eta gureau erdercari buruz zelan agertzen dan ondo ikustau dagijanak, aolan uste izango dabela deritxogu, sori-txañez ere.

« Euskera garbija edo bapez » zaleak, beraz, euskaldunen artean aspaldijon sartzen ari diran kezka atzerakari orñegaz, euskeriaren bizitziari berari, uste-uste barik, kalterik aundijena ez ete-deutse gero egiten !

Iztegijok aberastu eta aldatu, itz zaar asko aaztuz ta bazartuz egin oi-dira.

« Itzen ertz-bizitasuna (diño Dauzat'ek) ² eskutik-eskura dabiltzen txanponeena bezela, geroago ta erlaxtuago, labanago izan oi-da. Izkeria, berak eztakijala, itz zaar makaldu orñeen ordezkoen bila ibili oi-da. »

« Ordelarñijak azpiratu, alboratutako itzok, sañi, guztiz il baiño lenago, esakunen bateri iratsita, kukilduta, bertan gogortuta geratu oi-dira,.... »

1. Hugo Schuchardt'ek alemanez idatzi eta George Lacombe'k prantzetañera biurtuta, 1907'gn urteko R. I. de Estudios Vascos'en 329 orñi aldean, « Basque et Roman » buru-izenaz agertutako idatz-lanean.

2. Dauzat, a. l. 89.

Oñetariko itzok bádira gure euskera onetan ere : gorago esan dogun bezela -EREAN, aintxiñako atz-izkija, ofetariko esakun bateri ezañita bizi dogu Bizkai'ko itxas-aldean. ALA itza (erderazko *dolor, tormento*) tripALA edo tripakALA itzez kanpora ezlogu entzuten ija ; bardin BEN (erderazko *serio, formal*) ere, BENetan edo antzeko esakunen baten izan ezik, erijak eztarabil iñoiz.

Beste itz asko, onetariko aztefenik ere itxi barik bazartu oi-diñu erijak : or diñugu antxiñako ERAN (erderaz *matar*), ERAILE (*matador, asesino*) BEZUZA (*regalo*) eta beste zenbatu eziñala itz polit eta bear-beaferko.

Eta au ezta gure artean bakañik gertatzen, ikusi bestela Dauzat'ek zer dirauskun¹ :

« Izkeraok (diño) geroago ta edeñago, au'ereago zirelako askoren uste oker ori, ezta izan gaitz ezeztuten. Gaitzago da, oraitiño, galtzen diran balijo andiko izkerakijak zenbatzea..... »

Bádira beñogeñi urte, Jose Ruiz de Leon, gazteleñiko izkeriaren alde lan edeñik asko egin ebanak, izkera orñ Akademijiari onela zirautsala² :

« Argiztaratu daiguzan, aintxiña-itzak dirala-ta baztarturik diñugun, eta akademijako batek zenbatu diñuan, bost-miñla ta geñjago diran itzok, euren ordezko bañirik eztiñuen ezkerok, bear-beaferko diñugu eurok-eta..... »

Eta beratxuago :

« Itxitasun orñ erñuz (gobernuarenez) odozenbat itz eder eta esan-guratsu ikusten diñugu egunaro baztartuta, eta Akademia bañiz... ainbat itz muker, ots-gaitzeko eta txarto eraldutako bere-iztegratu beañan; arako *contabilidad, explotación, depreciación, misión, hulla, túnel, wagon* eta eundaka kontau leikeezan beste euron antzeko itz asko, ez eder, ez egoki eta ez bear izaneko eztiñan. »

Bere izkeriari eutsan maitetasunak, Ruiz Leon'eri orain

1: Dauzat, a. l. 168.

2. Don José Ruiz Leon. *Inventario de la Lengua Castellana*, VIII.

berögei urte eraso eutzazan itz aberkoi öfeek, naiz beste lenagoko eta geroagokoen ekiñak ere, eztabe ezer lortu, ez orduan eta ez orain, gazteleñko izkeriak beste izkera orok bezela, ainbat itz zaar aaztu eta erbestetiko itzez ala itz bañiz, euren lekuok beteten jañaitzea eragozteko.

Gura-nai-ezko legeak daroaz, (izkuntzalarijak dirauskuenez) izkeraok aldatza-beerazko bide öfetan zear, eta eztabe balijo, ez eñeguak, ez aginduak eta ez gure indar guztijak, jokera öfen kontra gauza andirik lortzeko.

Gitxiago, gure euskeriau legez bizi diran izkereetan.

Gure izkera onen idatz-bizitzia, guztiz da makala : irakurle gitxi eta idazle gitxiago, beste izkereen aldean. Eta beröfegaitixek, idatz-euskeraori geuk nai geunkeneratze-eñeza dogula uste izan oi-dogu, gauza makala, ezite-eñezagoa, menderatze-eñezagoa da izan-ere-ta; baiña gure izkera onek ere, makaltasunori uxatzeko, beste izkera orok jañaitu oi-dituen lege bañuan jañi bear dau; eta guztiz sendatu daiñean (laister izan beite) gure ekiñok eztabe ezetariko indañik izango euskeriau eziteko; eta or agertuko dira beste berögei urte bañu, orain Ruiz de Leon'en eñeguok bezela, auts artean lo, eñijaren berotasuna utzi ta zentzun otza lagun dogula aldeztu daiguzan itz eta izkerakijok.

Eñijak eztau iñoiz alegiñik egiten galtzen ari diran edo galdu diran itzok herbiztuteko; gitxiago oraindik, eurak zustraitzat artuta itz bañijak eraltzeko. Erderazko *asesino* adi-erazoteko « *eriotzgin* » itz argi eta poliña irakuñi dogu oraintsu¹ bertsöleri eñi-eñikoi batek idatziña. Ezetariko euskal-ikasterik eztaben Eibar'ko langile batek (ondiño oraintsu onek ere)² erderazko *hombre serio*, *formal* euskeraz esan nairik « *gizon benetalarixa* » esan euskun.

1. Enbeita'tar Imanol'ek, Bilbo'ko « Euzkadi » egunerokoan, aurtengo Zemendi'ko zenbaki baten.

2. Cayetano Careaga deritxo.

Eriotzgin, benetalari : eztoigu uste itzok, bein entzunez beste barik, iñungo euskaldunek aituiko ez-leukeezanik. Onetarikoxe itzak dira, gorago esan dogun bezela, ERAILE, BEN eta antzeko *txanpon labanak* bezela ertzak ilda dituezan itzen ordezt, eñijak safi asmau oi-dituan bañi, garbi, aituikor eta ertz-zofotzak.

Ikusi dogu gorago Dauzat'ek diñoana : Itz bañijak aituikor izateko, oraintasun usaiña bear dabela; eta egija da. Aintxiñako itz asko (ezetariko seniderik itxi barik il diran edo il-agiñean diranak atan-ere) eztabe indafik euskaldun geijen-geijenen burura argi izpirik ere bialtzeko; eztabe nundik oratu, eztabe esegikairik gure buruoi ezañia geratzeko; berofegaitik, noiz-edo-beingo gai-bakanen baten izan ezik, eztira eurok, eñijari beñikasgaitzat jaurtiteko, gauza eñikoiai ezarteko, egokijen-egokijenak.

Jafaitu daijogun bada, euskaldunok ere, kezka barik, Dauzat'egandik artuta gorago azaldu dogun izkuntza-gertakun oni :

« Alde orotan (giñoan) beti bañiztatzen ari diran erderatiko itzez eta itz-bañijen bidez, apur-apurka, ezebezean geratzen dira aintxiñako iztegiak. »

Iztegiaren aldakuntza ta bañiztatzeari buruz itz egin dogun ezkerok, esan daigun zertxobait, itz-ots aldakuntziari jagokonez ere.

« Izkerak (diño Hovelacque'k) ¹ eraltzen direnez gero, laster asten dira euren itz-otstegija apur-apurka aldatzen eta euren erakijak bañiztatzen. Itz-ots itxijak beste makalagoetariko edo gogoragoetariko biurtzen dira, eta itz-ots edegijak solijagoetarikotu edo sakonagoetarikotu; batzuok nai bestelzuok, alkaferi zirkin eragin oideutsee safi, eta ofela sortzen dira, izkera bat mintzatzen dan eri batzuetan, era bateko bañiztatze legçak, beste batzuetan beste era batekoak, eta olantxe, gitxika-gitxika geroago ta urinagotu egin oi-dira izkera-sendi bakotxen beso edo adafak.

« Iskuntziaren edestijari buruz (diño Dauzat'ek) ² itz-ots biralda-

1. Hovelacque, a. l. 420.

2. Dauzat, a l. 67.

kuntzaak dira lenen begiztau bear ditugunak, oréexeri lotuzkoak dira gitxi-asko beste aldakuntza oro ta.... » « ¿Zeintzuk ete dira (itantzén dau berak) itz-otstegijaren bañizlatzea zaintzen daben legeok? Jakintziak, lortu dau, eurok zeatztasunik andijenaz zeindu ta eraltzea... »

Dauzat'ek, berak goratxoago dirauskunez¹ « itz-egin oi-dogunean gure gogoaren ikuskizuna, gure oldozpen-gaija, ezta geure izkeria bera izaten. »

Agaitik, itz-egiten eta zelan egiten dogun zaintzeka, berez-berez geure agoko ots-zanok egokijen, érezen daben erara itz-egiteko jokeria izan oi-deuskue beti.

Jokera orék, aldatzen diñu bere aldiz, apur-apurka, gure aoetako itz-zanok; eta oréla, itz-otsok eta gure ao-zanok, gizaldirik-gizaldi alkar aldatzen-da-aldatzen, izkera osoa beste-erataratzen da, aldiraren-aldiz.

Ortik ondorentzen danez, itz-ots aldakuntza legeok jañaikoi baiña indar mee, zee ta arin-ariñez jokutzen dabe, eta oréxegaitik legeok éri eta aldi batzuetan era-batera artzen dabe luña, eta beste toki ta aldi batzuetan bestera.

« Itz-ots legeoen bai-ta-eztasuna adi-erazoteko (diño Gregoire'k²) gainératu daigun, eurok bakotxak auzo edo toki-alde berezi baten baiño eztabela indarík, eta bertan ere, denpora-aldi baten bakarík; legeok, bada, tokizkoiak eta aldizkoiak dira.

« Orégaitik eta beste onatu leikezan érazoi batzukaitik (jañaitzen dau) obe dogu legeok, itz-otsak biraldatzean agertzen daben jokera uts-ustzat artu, beste izaki berezkoién eta arau zeatz eta beti-bardin jokatu oi-daben legeak bezelakotzat baiño; ain alditan, ain éritan, ain itz-otsek, onetara edo arelara aldatzeko gogoa agertzen dau; baiña jokera orék, ezta ezer lortuko, beste edozein indaríkik eragotzen ezteutsonean baiño; eta ez aaztu, orétariko eragozkaijak era askotakoak dirana. »

Bardin diño Meillet'ek ere³ eta onek, bai-ta-eztasun ori, izkuntza -arau orori ezarten deutso; ikusi :

1. Dauzat, a. l. 31.

2. Gregoire, a. l. 63.

3. Meillet, *Revue du Mois*, août 1910. *La Méthode de la Linguistique*.

« Izkuntz-arauak (diño) eztira beste jakintza batzuetakoak bezela orokařak, izkera eta aldi bakoitzarentzat berezijak baiño; aldijari eta tokijari lotuak filosofilarijen izkeraz mintzatuta. »

Ona emen, adibidetzat, izkuntzalarijok diñoen ori sendotzen dabeen euskerazko gertakun batzuk :

Iñoiz eta toki batzuetan, *Markina, baino, bina* esaten zan eta esaten da Bizkai'an bertan ere; beste toki eta aldi batzuetan *Markiña, baiño, baiña*; gura-ta-be ezin izaten ditue esan, gaur, baseřitar askok itz oneek lengo eratara. Iñoiz eta iñun *maila, oilo, bila* eta beste aldi eta tokiřan *maĩla, oiĩlo, biĩla*. An *aita*, emen *aĩla*, bestean *aitxa*; len *ogia* orain *ogija* toki batzuetan, beste batzuetan *ogije, ogie* eta *abar*.

Eta gaurko naiz lenagoko euskeriaren gertakun oen antzerakoak, beti eta izkuntza orotan jaso oi-dira eta oi-izan dira. Grezitarēn izkera zaařaren itz-ots aldakuntziari buruz, ona emen Hovelacque'k diñoana ¹ :

« Alperiko lana litzate grezitar izkerearen oguzkeria noiz aldatu zan, zeatz azaldu nairik jardutea..... Indargai bik lagundu eben aldatze ori, edo obeto esateko, aldatze batzuok gertau zeĩteezan : aldija eta tokija; ain aldakuntza, ain toki eta ain aldiřan gertatu oi-zan eta bera, beste toki batzuetan, leenago edo geroago gertatu zan edo gertatuko zan. »

Latin jatořa egiten zan aldija baiño leenagoetan, aintxiñagoetan, izkera entzute andiko ori berori ere, beste era batera oguzten eben :

« Latin zaařak eta jatořak eben aldeetatik lenengoa (diño Hovelacque'k ²) jatořak zaařaren izkira-edegi-bikoitzak bakartzeko agertzen eban jokerea zala esan lei..... Latin zaařak *loumen, jous, oĩnus, oiĩtile, ploeres, ceivis, leiber, veicus*, esan oi-eban eta jatořak, *lumen, jus, unus, utile, plures, civis, liber, vicus*. »

Zaařaren *ai* izkija ere *ae*'tan biurtu ei-zan lenengo (Ho-

1. Hovelacque, a. l. 301.

2. Hovelacque, a. l. 304.

velacque'k berak diñonez); gero, efi izkereak e luze biurtu ei-eban *ae* ori : idatz-izkeriak ere bai, eñjak baiño irureun edo laureun urte geroago.

Latin jatoñak berak ere, orok daki, iru edo laugañen eun-urteko aldijaren inguruetan, zelako aldakuntzak jasan zifuan : euren *ke-hi* izkijak *ze-zi* tan biurtu ziran; bardin *ge-gi* ere, *je-ji* tan; *tia-tie* ta abar, *zia-zietan*...

Latiñeon berton, bai beste aintxiñako eta oraingo izkera asko eta askotan gertatutako beste oñako aldakuntz polit asko eragertzen deuskuz Hovelaquec'k berak; baiña ezteiguzan emen aitatu, itz-aldijau, ezlogu luzeegitu nai-la.

Orain arte emen aratu ditugun itz-ots eta euron joskeeren aldakuntzok, bereratzaiñe edo eñeztzaiñe jokerakoak izan dira. Baiña aldakuntzok ezlira beti oguzkeria eñeztuteko izaten; bádira geure agoko itz-zanoi bizkortu eta indartu eragin oi-deutseenak ere. Era-oñetako aldakuntzeen zustrai-legeak ere asko dira, baiña urñengook, gure ustez, aipagarñjenak :

Lenengoa : Itzak eta esakunak laburtzetikoa. *Bost eta sei* baiño *bos da sei* esangaitzagotzat izan oi-dogunañen, bigañenau laburñago dalako edo, sañi entzun oi-dogu, lenengokoofñen ordez. Sarazaitzu'ko euskaldunen *deitrik*, *egoten dra* eta antzekoak ere beste euskaldunon *deitirik*, *egoten dira* eta abar baiño gaitzago dira esateko, baiña laburtze-legeak eñez-legea goñtu dau itz-oñetan ere. Aintxiña, *andera*, *abere* esan oi-zan toki askotan, gaur *andra*, *abre* esan oi-da : laburñago baiña gaitzago.

Bigañen legea : Zarata itzetatikoa. Zarata itzak berrizko ots gogor eta indañezkoak bilatzen ditue sañi, eta, euroetatik sortzen dira, izki bañi asko ere. R eta L biñar-teko daben izkirik ezin esan izaten ei-eben aintxiñako euskaldunak (eztakigu esakun oñen egitasuna noraiño eltzen dan); gaur, belañjok ondo itxita euki bear izango

geunkez ofetariko izkijak euskaldun jatoréenen artean ere egunero ez entzuteko; lenengo zarala itzetan, adibidez : *TRISKANTZA*, *BLISLI-BLASTA* eta abar; gero osterantzekoetan ere bai : *KRESALA*, *APRAIZ*, *ODRIOZOLA*, *GONDRA*, *TRIL*, *PLAZAOLA*..... eta euskaldun oroen aetatik gaur-egunean éféz-éféz eta saíi-saíi urten oi-daben oféen antzeko beste itz askotan.

Irugafen legea : Erderazko itzetatikoa. Erderatiko itzez batera sartu dirala dirudi gure izkeraan len beronenak etzítuan izki eta izkira-otsen batzuk ere; baiña ezta éféz oféri buruz ere gauza ondo eta zezt baieztezagafizkorik azaltzea; gaiñera alantxe balitz ere, baldin euskaldun jatoréen artean sakon eta zabal bizi badira, erderatikoak dirala ta beste barik, ezgeunke, beste izkera batek ere egin oi-eztabena egiñez, eurak baztatu nai izateko esku-biderik. Geure agook, euskaldunenok, itz-otsak oguzteko geroago ta trebeago, gauzaago izate ori, kaltezkotzat eukilea, itsukeri aundija litzate. Gorago ere esan dogu : oneetariko aberastuteak, iñungo izkeratan ezlitúez gaitzetsi ta ezetsi. Ezgaiñezan bada gu euskaldunok (diñogu baíro ta baíro ere) ez onetan eta ez beste geure izkera oni jagokon ezetan, iñor-ez-lako geurekor eta aókeritaraiño eltzen dan besteko garbizaleegi itsuak izan, eztoгу zeri geure euskera maié onen osasunari begiratu ezkerota.

Itz-ots arazo onetan, naiz beste izkeriari jagokoezan orotan, eztaigun aaztu iñoiz : izkeria gauza bizija danez, beti aldatzen eta aldatzen ari dala, ta bere izatea, aldizka neurtu eta adiratu beaf dala; bere izatetasuna noiztasunaz alkarkidetu beaf dogula beti.

Gaurko euskal-itiz-otstegija eraltzeko ere, begiratu daijogun bada, *gaurko* euskaldun jator geijenén euskereari, zezt-zezta; ikusi daiguzan bizitza agirija daben eta beaur sendoagotzeko jokerea daben itz-ots eta euron joskeraak zeintzuk eta zelakoak diran; eta euren gain, otz-otzean,

aren aldeko ta bestearen kontrako biotzkeri barik, eraldu daigun itz-otstegijori; eta, gaiñera, ez berau beti-betiko izango dan ustez, gero-ta-gero ere, geure euskeriau luzaro bizi badaite beintzat, bafiztu, geiñu edo gitxitu daifena gogotan eukiz baiño. Izkera agerkun arazo guztijetan, bururatu daigun beti euron bai-ta-eztasuna, ointxe olan ta gero bestetarako izatetasuna; ta ofela geure buruok, izkera ikastijetarako bear dan bezelako argifasun ta egokifasunez gertau daikeguzanez gaiñera, geure uste eta eretxijetan, alkar-aitukofago izango gara; gaur maite ditugun agerkunok, bijar aldatu daitekezela ikusteak, euron alde imini oi-dogun sua ta gañazlasuna, otziñu ta eztiñu egin-erazoko deuskuz-ta.

Gomutau daiguzan oraintxe Dauzat'ek gramatika irakasleai dirautseezan itzak' eta ezafi daijeguzan eurok itzots legeoi ta itzaldi onetan darabilguzan beste gai orori :

« Gramatika irakaskuntziak (diño) alde egin bear dau egi-itsukoietatik : jakintziâu, apala, arokëri bakoa da; eztau beronek beti gauzearen zegaitija azaltzen; safi bera zelan edo zelakoa dan esan eta ixildu egiten da. Beti-beti sartuta euki bear dogu geure buruotan biraldakuntziaren ustea; len aldatu dan eta gero ere aldatuko dan izkeriaren une edo aldija aztertzen dau maixuak. Ondo da, idatzizkera bat, garbi-zaletasunez irakastea, baiña ikaslea guzuiezko ormaz inguratzen ibili barik; ta bai, lengo aldakuntzen ereduz, geroakoak auzez-ikusi-erazota; eta ain itz, ain eraki, ain esakun, gaur ezetsigarija izan afen, orain baztarturik dauken giza-gogoerak zapalduz geroago nagositu leitela irakatsita. »

Onenbestez, eldu gara, itzaldi onen azkenengo atalera. Efi izkera edo ao-izkeriaren eta idatz-izkeriaren alkarkidetetasuna da beronen gaija.

Aintxiñetan, idazle eta irakurle, gizon jakifun gitxi batzuk baiño etziran izaten. Idatz-izkeria ta efi-izkeria, aldi areetan, gauza bi, alkañengandin ufin zamartuak izan oi-ziran.

Banan bizitze ořetan, idatz-izkeria euki oi-zan nagositzat; eta eři-izkeria, bere jopu aintzat ere ez-artzekoa baiño ez oi-zan izan. Baiña euren ařokerijiak galdu zituan aintxiñako idatz-izkeraok; eři jagandik urĩñago eta makalago, azkenian, il ziran betiko arako sanskrit idatz-izkeria, grezitařen idatz-izkera zaafa, godotařena, latin izkerajakintuntafa eta abar. Ořegaitik diño Dauzat'ek¹ :

« Izkeriaren biraldakuntzia geratu eziñezkoa da. Baldin idatz-izkeria geldi lotzen bada (au lortu leikena da) ao-izkeratik, izkera bizitik, laster urĩnduko da bera; orduan bere kementasuna bařizatzeko bear daben bařu-izardi barik, igartu egiřen da, ta benetakolasun bako idatz-lan afo-afo ta bařu-utsak baiño ezliřu erasortzen. Gramatikalarijai jaramon egiteagaitik, Virgil eta Ciceron' en izkeriari begiratzegaitik, latin idazkuntzia, eun-urteko baten bařuan, guzliz antzututa, elkortuta geratu zan. Claudien' ek, eriotziak jotako izkeraz idatzi eban, Bembo kardenalak amaika eun-urteko geroago bezela, bardin. Bizanti'ar idazkuntziak ere, garesti ordaindu dau ořetariko irakatsijai jařaitzea eta ezta idatz-lan gurenik ekaři giza jakintzategira. Gauza antzekoa gertau zan Prantze-eřiian ere amazortzigařen eun-urtekoan, poesi-izkereari buruz. Eřomař-zaleen agerkunik nagosijena, izkeren-itxulaste edo biraldakuntzia izan zan; eta bere on ugarijenak, aundi-zurenkerijok betiko bertan-bera itxita eři-izkeriaren aberastasunak esku zabalez artu ta beraganatu zitualako jaritsi zituan. Eři-izkeriari itsatsita, deutsalara, bizi bear dau idatz-izkeriak, baldin bizirik jařaitu nai badau. »

Baiña oraingo izkuntz-jakintza baři au sortu baiño lenagoko izkuntzalarijak, etziran konturatu egi ořeezaz; latin izkeria, ilda gero ere, gorpu zala ere, gure gurasoak, eredutzat euki oi-eben euren gramatika-ikastijetan; eta bere aintxiñako andiřasunez, edertasunez ta aldatzeketasunez jantzita gura eukeezan ikusi euren jaiotz-izkeraok.

Atan-be au, aldatzeketasun au, idazkuntziaren bidez lortu eleiteenik etxaken bururatu ere egiřen eurari; eta uste onetakoak asko dira oraintxe ere gure artean. Ona

1. Dauzat, a. l. 5g.

emen oferi buruz ere, gorago ikusi dogun guztiaz gaiñera, izkuntzalarijak zer dirauskuen :

« Izkeren bizko'fago edo geldijagoko biraldakuntzia (diño Dauzat'ek¹⁾) alde guztijetatik agertu oi-da eta eztau gizonak bera geratu al-izateko indarrik. Leenago, izkeria ta bere ortografi edo idazkeria, idazkuntziaren bidez, beti bardin eta geldi euki leikeazala uste izan eben. Prantze-izkeria, amazpigar'en eun-urtekoan geldiratu zan eretxijaz aburu-batekotu ziran gramatikalarijak, oindiño ainziña ezjala. Ezta iñundik iñora ere egija ori, eta alan eragertu dau Meillet'ek Brunnot'en ur'engo. »

Ona emen Meillet'ek diñoana :

« Erakijok (Prantze-izkeraan) geldiratuen jaraitzen ebela uste zanean, orduantxe gertatzen zan aldakuntzarik andijena : orduantxe makaldu ziran eta ezebezeratu itz-amaikijak eta ordez, aur'e-itx eta beste itz-zatikin batzuk aditzari ezari; itz-batez, orduantxe galdu eban prantze-izkeriak, latin antzeko atzizkidun izate-eria eta gaur benetan dan bezelako aur'e-izkidun biurtu..... Idatz-izkeria geldiratuen zanean orduantxe gertatu zan biraldatzerik andijena. »

« Izkeriaren gerakortasuna (ganeratzen dau Dauzat'ek) bere batasunaz nastabijau eben, eta berau, lenengoa barik, ezin-lortuzkoa zala uste izan eben : baiña gertakun bijok, alkar'ekin-zer-ikusirik-ezkoak dira. »

Aor agiri da bada, idatz-izkeria efi-izkeriaz urin iminteak kalterik nagosijena beretzako daka'fena; efi-izkeriarentzat baiño geijago, beronek, idatz-izkeriak inguratu leijozan esijok, e'ez eta arin ganeztuten diu-ta. Zer lortu dau Prantze-izkeriak, adibidez, orain zortzi-amar eun-urteko zala itz-egifen eben izkereari jagokon ortografi edo idazte-eraz gaur ere idazten jaraituta? Idatzi erabatera eta irakuri bestera egitea baiño ez; prantze-irakurtaileak, begijen aurf'ean ikusten dituzan izkira asko jan eta beste asko aldatu egin oi-di'u, belar'ijak eskatzen deutsan eraz; irakuri, ezta begiz baka'rik egifen, begiz ta belar'iz baiño-ta.

Ao-izkeriaren eta idatz-izkeriaren bardiñeztasunak, era bitakoak dira, ikusi dogunez :

1. Dauzat, a. l. 57.

Lenengoa, idazte-era edo ortografizkoa da : idatzi era batera eta irakuñi bestera. Bardiñeztasun au ezta azalekoa baiño; *irakuñi* eta *itz-egin*, bardin egin ezkeru, idazte-eriaren okeñak, ezlabe, idatz-izkeria ao-izkeratik, irudiz baiño uñintzen. Okeñau geijago (prantzetañez eta ingelandañez barbarako) edo gitxiago (españeera) izkera ortan gertatu oi-da, guztiz itsuri edo alde-erazo eziñezkoa da-ta.

« Iñungo izkeratan (diño Gregoirek¹) ezin bardindū lei guztiz itzeen idazte-erea, eurok osolzen dituan itz-etsarkin. »

Bigañena, irakufizkoa da : idatzi ta irakuñi erabatera ta itz-egin bestera. Auxe da benetako bardiñeztasun kaltegañizkoa; ta gorago ikusi dogunecz, idatz-izkeriaren makaltze ta eriotzia atzean dakañena.

Beronen gaitzok, orain, aintxiña baiño askozaz ere aundi eta agirijagokoak dira. Len, gorago esan dogun bezela, idaztea ta irakurtea jakitunen zeregiña baiño etzan, baiña azkenengo gizaldijetan irakur-zaletasuna (ta beartasuna batez ere), zabaldu da eñijetan, eta gaur, eskola, liburu, izpañingi eta beste irakurkizunoen bidez, sokondo guztijetara eldu da auñerapide ori, eta eñi-izkeria ta idatz-izkeria, nai-ta-nai-ez alkañen adiskideago egin dira.

Izkuntz-jakintziak, beste alde, jaso dau mailarik goijenetaraiño eñi-izkeriaren, ao-izkeriaren, nagosiñasuna; eta jakintza oferi jañaituz, eñi-auñeratuetan, aletin guztija egiñen dabe gaur, idatz-izkeria, eñijarenaz aldan bestean bat-egitiñen, eñi-izkeñiaren lege berarizkoak idatz-izkeriari ezarten, eta bere aldakuntzai al-danik uñerenetik jañaitzen.

« Erantzun-eziñezkoa da (diño Dauzat'ek²) ao-izkeriak idatz-izke-

1. Gregoire, a. l. 107.

2. Dauzat, a. l. 36.

riaren gaiñetik daben nagositasuna; eta izkuntzalarijak eztau inoiz ere azlu bear, idatzija, izkeriaren jantzi edo soiñekoa baiño eztana. »

« Gogoan euki bear dau beti (diño berak geroago¹) idatz-izkeriaren eta efi-izkeriaren lege orokañak bardin-bardiñak dirala, ta izkera asko bizi izan dirala ta bizi dirala idatzi barik baiña ez itz egin barik. »

Gaurko izkuntzalarijen eretxiko zan, orain dirala eun urte bizi izan zan Vouk Stéphanovitch Karadjitch serbitar izkeralari ospatsua ere.

« Jakitun onek (diño Hovelacque²) bere abeñiko izkeriari-buruzko lan balijotsu ~~garai~~ ta ain ederki amaiñu zituanak asi zituan ^{garai} serbitarñen izkeria, orañdik zelakotu barik zala esan lei; aintxiñako eleiz-eslabitar zaarñ ta benetako efi-izkeriaren zatikin batzuk nastuz eraldutako izkera guzur-izatezko bat erabilen, abeñi izkeratzat, idazkirik geijenak. Benetako efi-izkeria, bee-sundezkotzat, txiro-sundezkotzat euki oi-eben. Vouk'ek, abeñi izkeria, zan bezela aintzat artzeko eskatu eban eta ortografi edo idazte-eria zustraiz aldatzeko. Eun-urteko erdiñan ekin beañeko buruka ostean, garaitzailu urten eban guztiz, kroato-serbi-izkeriagan eban ezagutze sakonari eta bere lanen zeatztasun eta zuzentasunari esker. »

Gauza jakiña ta agirija dogu bada : idatz-izkeriak, alegin guztija egin bear dau, efi-izkeriaz bardinduten, bestela, efi-izkeria auñera doa bere bidean, ardura barik, bestea atzetik joakon edo ez jaramonik egin barik. Idatz-izkeriak, eztau ezetariko indañik, efi-izkeria bereganatzeko, beronen ondo-ondoan, beronen epeltasun-peeñan burua makurtuta apal-apal jañi ezik. Efi-izkeriaren ta idatz-izkeriaren batasuna lortzeko, beronek egin bear dau alegin, efi-izkeria berekoia, auñeralari itxua da-ta. Izkuntz-jakin-tziak, izkuntz-edestijak, olan dirausku, ta ezteiguzan ezetsi euron irakatsijok.

Idatz-izkeriak, eñikoi izanez gaiñera, batetariko izan bear dau. Beti bardin ez, baiña aldi baten, oroentzat bardin bai. Berau barik (atan-be gure eñijau lako toki txiki

1. Dauzat, a. l. 316.

2. Hovelacque, a. l. 374.

baten) ezetara ere zirkiñik iñora ezin egin leike : izkera baten idazte-erriak, batetarikoak izan bear dau, bai, naiz-da efi-izkeria, alde txikitxuagoz edo anditxuagoz, era askotarikoa izan.

Ezta bizi gaur munduon, efi auferatuetan, bear izanori ontzat artu eta lortu eztaben izkera ez andi ta ez txikirik ; eta oro, izkera oro dira, efi-jaren agoetan, ainbat eta ainbat eratakoak. Eztago izkelki bako izkera bizirik :

« Izkelki zelaijak, amaibakoak dira (diño Dauzat'ek¹) eta zelai ofeen zatirik andijenak oraindiño arakatu ta aztertu barik dira ; ta au ezta miresteko, prantze-izkeriak berak, idatz-izkeria dala, ogetamar mila izkelkiragiño diñu-ta. »

Guk euskaldunok, geure izkera oni jagokozan arazotan, beste iñungok eurenetan eztiñuen eretxi, asmo ta burukerijak diñugu ; geure izkera onegaz iñun oi-etziran ikuspide-lanak egin nai diñugula dirudi. Batasun onuratsu ori, beste efi-jetan aintxiñatik lortuta ikusi arien, guk oraindik, onuratasun ori berori ere, geure betiko ezta-bai-da gaijen artean dogu.

gorago ikusi dogunez, *izkuntzalari oro eretxi bateko* diran aburu edo usteetarik bat, auxe da : « *Izkeraok, euroenez, izkelkijetan zatikatzeke gogo dabeela ; eta indar banakatzaile oren bestalderakoiltzat, abefi-izkeria, idatz-izkeriaz zaintzen dan izkelki nagosija, izan oi-dala*². »

Euskaldunok arazo oferi buruz izan dogun itxitasun edo alkar-aitu-eziñaren kalteak eztira txikijak, geure izkera onen osasunarentzako. Urteak dira itxitasun ori izkuntzalarijak arpegira jaurtiten euskuela, baiña alpefik : euskaldunon buru-gogortasunau andijagoa dogu, izkuntzalarijen irakatsijai zor deusgagun lotsia baiño.

« Efi-jak berenez egin oi-daben izkeriaren ondoan, (diño Hovelac-

1. Dauzat, a. l. 239.

2. Dauzat, a. l. 322.

que'k⁴) efi-izkeriaren ondoan, izkera orok izan oi-dabe, itunbenez edo, ekanduz edo, izkelki nagosi bat, orokar bat, idatz-izkeriaren ur'-ur' bizi oi-dan bat. Euskaldunak bañiz (diño Hovelacque'k berak) eztabe olakorik, eta idazle bakoitzak, berak asmau oi-dau, berak eraldu oi-dau, beretzako, bere burutiko idatz-izkeria. »

Aintxiña izkera asko agertzen ziran orain gureau bezela, ezetariko batasun barik. Alemanitarfen izkeria bera ere olantxe aurkitzen ei-zan orain sei-zazpi eun-urteko-rarte; baiña utsune ori gora-bera, orduko munduaren bizi-moduak ez eutseen orduko izkerai oraingoak orain-gooi besteko kalterik erakarten; gaurko munduko ikaste ta artu-emonak, il edo bizizko indaiez eskatzen deutse izkerai euron idazkuntza batasuna; ta geu euskaldunok, diñogu bañiro ere, aurkitzen gara il edo bizizko dei ofi jaramonik egin nai ezik, beste izkera oroen azpijan.

Idatz-izkeriak, *efi-jaraitzailea* alde batetik, eta bes-tetik *orontzat bardiña* izan bear dabela esan dogu. Bear-kizun bi ofeek, alkañen kontrakoak dira eurenaz, itzez-itiz artu ezkerok; baiña, ikusi daigun zelan aitu bear di-tugun : Idatz-izkeriak efi-izkeriaz bat eginda bizi bear dabela ezan oi-dogunean, eztoгу esan nai, berak, efi-izkera oro, osorik edo guztiz beraganatuta bizi bear dabenik; efi-izkera mota guzlijak idatz-izkera bañuan ezlegokez; bestetara bai bañiz, idatz-izkera guztija, zabal, zustraitsu ta sendo efi-izkereen bañuan.

Izkera bijoen alkarkidetasun ori, gorago esan dogun baizen zustraizkoa eta benetakoa izateko, idatz-izkeriak, efi-jaren era askotako baiña esan-gura bardiñeko itz eta gramatikakijetatik, *bizitarik sakon, sendo ta zabalena dabeenak aukeratu bear dilu*; ta bardiñean, oñetara nago-sitzeko jokeria dabeenak; auxe da, beti, geure gogoaren bañu-bañuan sartuta euki bear dogun jafaipidea.

Idatz-euskerarik egokijena, ezta beraz, aintxiña, efi-jaz

ufin bizitzeak il zifuan izkera andizurenezkoen edertasun eta aberastasunen antzekoz jantzitakoa; ezta noski gure usteak ederenentzat, garbijenentzat, txukunenentzat etsi leikeana; *ezta zeatzen edo zentzunenezkoen* eretxi leikeoguna ere; euskaldunik geijenen belarjjetan zear bigunen eta aitukofoen sartu leifekena baiño; efi-izkeriaren gungunez, beronen izerdirik ugari, baruko, eta beroenez, burutik eta oiñetara elikatu, andu eta gurifutakoa baiño.

Eta ofetariko idatz-euskeria lortzeko, ezta bear maitekeririk, ezta bear biotzkeririk ez buru austerik, ez ezta-baidarik, ez jakituri andirik. Entzun, begiratu, ikusi ta gaurko euskeriaren benetako bizitzia zein dan azaldu; beronen gramatika-eraki benetan zustraiñuak zeintzuk diran, beronen iztegi zabal ta sakon bizi dana zein dan, beronen izkira, izki ta itz-otsak eta ots-joskera jokerarik geijenez agertzen dituanak zeintzuk diran, itz batez, tokirik geijenetako euskaldun jator geijenen artean zabalen, sakonen eta sendoen zustraituta bizi diran izkerakijak zeintzuk diran azaldu, ikusi ta argitu eta eurok izan daitezela idatz-izkeriaren gorputza osotu dagijenak.

Auxe dala biderik onena irakasten deusku gaurko izkuntz-jakintziak, gure euskera gaixoau beia-jo-agiñean aurkitzen dan tokitik zuliñu eta lerdentzeko. Auxe dala dirausku, izkera orok jaraitu bear dabeen bidea; gure euskera onek atan-be, efijaz landa, efiwaren berotasunaz gaiñetik, beste geijenak daben indar-laguntasun eta gurasotasun barik, ume-zurtz aurkitzen dan euskera maite onek, atan-be.

Itxi daiguzan bada alde batera, gure aufe-eretzijok, geuretzat, bakoitzarentzat, eder, atsegingari ta zentzuzko litzateken euskeriaren alpefiko atzean ibilteok.

Idatz-izkeriaren jokeria, gogoa, bidea ta indara alde bateruntz eta efi-izkeriarena besteruntz, ori iñoiz, ere ez; efi-izkeria geuk nai geunkean eratatik, geroago-ufiña-

gotzen ikusila ere, jaraitu egin bear deutsalgu idatz-izkeriaz; efi-izkeria geuk maiteen dilugun erakijak, itzak, itz-otsak eta abar utzi ta beste batzuk, geure gogoko eztiran batzuk artzeko bideetan ikusten badogu ere, aaztu daiguzan geuretzat maifagari diran izkerakijok eta idatzi daiguzan efi-jarenak; iñoiz ere ez, diñogu bafiro ere, efi-ja alde baterutz eta gu besterutz; bijok al-daikegunik ufen, batuen, eta adiskideen baiño. Ofetaraxe egin daikegu lan onurakoña, ofetaraxe, alkañen berotasunaz indartu leitekez izkera agerkun bijok; bestetara bañiz, alkañegandik ufinduz, bijok otziñu ta makaldu erazo eta euroi eriotz-bideetarutz bultza baiño ezteutseegu egiñen.

Ta azkenez gogoan euki daigun egi itzal au : gaur egune-ko giza-artu-emonetarako, batasunezko eta efi-ja adiskide bizi dan idatz-izkerarik euskeraan aurkitzen ezipadogu, gura nai ez, erdereetara joko dogula danok, utsune ori beteteko. Sori txañez, egi itzal eta samin ofen ondo-renak, lañegi ere agiri dira, daborduko ere, euskaldunon artean.

Bazartu bada buru-gogortasunok eta autu daigun geure idatz-izkera batasunezko ori, orokañori, geure izkera maiteau laister il-otzik ikusi nai ezipadogu.

Asmo bat baiño eztaigun izan danok : euskeria eztaitela il ¿Zelako eraz bizi bear daben? ¿Bere oraingo erderiaz inguratutako egokera estu ofetatik, garbijago ala loijako, ederñago ala itxusiago urtengo daben? Ezteigun ofezaz lañegiko ardurarik izan; bizirik urten daijala, eztaitela il, izkereen eriotzia betiko eriotzia da-ta. Guk bizirik emon daijogun geure ufengoko gizaldijari, eta au edo ufengokoagoak gu baiño era obean aurkiñuko aldira euskeriaren osasuna zainduz gainñera, al-daiten beste-berau garbiñu eta edertzen ekiteko.

Lengo gizaldijetako gure gurasoen euskal-lanak ain gogor jo ziñuan eta gaur ainbeste bidar aifatu dogun

Hovelacque izkuntzalari jakitunak, gure euskera au, aintxiña-aintxiña-aldijetan Europa'n bizi izan ziran izke-reen erlikija eder ta balijo aundikoa dala diño¹. Jesukristo jaijo zan aldija baiño oraindik milaka urteak leenago Arius' tafak Europa'ra etofi orduko bertan zirean izkera ugarijetatik bizirik gelditulado bakan bat dogula geure izkera maite au, diño Dauzat'ek². Bardin uste dau Gregoire'k ere³. M. Broca'k⁴ Europa'ko izkerarik zaaferentzat deusku geure euskera maitegarijau; eta bardin edo antzeko izkuntzalari orok.

¿Ez litzate bada negargarija, oraintxe, eñijen nortasuna, euron-burutasuna, goratzen eta euroi lotsia artzeko bide-etan munduau asi dan gizarteon bertontxe, burutasun edo nortasun ori, gure eñi oni, ezek ezleikeen neufiz ta inda-fer agertzen deutson geure izkera eder au, geuk, geure eskuetan ilten izlea? ¿Geure gurasoetatik belaunik-belaun, ainbeste mila ta milaka urteren buruan zuzen-zuzen artu dogun etorki eder au, etxaguntza buru-goi ta argifaraau, oraintxe, geure itxitasunez, semerik deunga ta gaiztoenak bezela, bertanbera il-otzik izteko adore lottsagarizkorik izango ete-dogu geuk?

Goratu daiguzan bijotzok, goratu daiguzan gogook, eta ekin daijogun, euskaltzaiñok aurretik eta beste eñikide oro lagun ditugula, geure euskera kutun onen eriotzia beliko ufinduten; geure euskera maite ta eder au sendotu, bizkortu zabaldu zustraitu, eta anai oroen ago eta belafijetan, maitekijen eta gozoen bizi izatea lortu arte.

Ekin bada gogor eta buru argiz. Ja'ai nekatu barik eta bide zuzenez.

AMAITU DOT.

1. Hovelacque, a. l. 153.

2. Dauzat, a. l. 137.

3. Gregoire, a. l. 35.

4. M. Broca, *Sur l'origine et la répartition de la langue basque* (*Revue d'anthropologie*, t. IV), lenengo ofialde eta urengotetan.

R. M. DE AZKUE

EUSKALTZAINBURUA'K SEBERO ALTUBE'RI EUSKALTZAIN

ARTU-ORDUAN EMANDAKO ONGI-ETORIA

Ondo eto'ria izan zakiguz, aspaldion adiskide ta lankide zaudazan ori, gure arazo onek e'raztu ta jasotera.

Ezautailutzat artu dogun pitxi au papa'fean b'era ezafi-
aufetik zerbait esango dautsut, o'regaiti'ño, *nora ta zetara*
zatozan yakin daizun.

Norbaiti, bear ba'da, otu izan aldakio geuk geutara egifen doguzan batza'fetan ilun-milunkako zerbait era-
bilten edodogula; besteren bati, gure baltzu au marketsa
ezetedan¹. Onetariko izate markets geyenak, Grezia'fen
buru asmotsuetan erneta, gure asaba za'fen egunetan bizi
zirean. *Kyklops* edo begi-biribil-baka'rak (erderazko « cic-
lopes »), gu batean emen bestean Donostian legez,
Siciliako Etna garmendi ba'fuan batuta sugintzan inar-
duten eieben. Eun begidun gizona bere ba'eizan : Argos,
be'fogeta amar beti zabalik ta beste be'fogeta ama'rak
ertsita (itxita) eukazan gizon zur-zur bat. Eztakit zegaitik,
bekaizkeriz edo, galdu gura eben beintzat eta ezin jadetsi
eben euren guraria. Gizon zu'fak zurt daki egoten ta ¿nok
a albora begira ikusi? Bein, o'regaiti'ño, Merkurio za'rak
txirula (flauta) -otsez lo eraginaz, il eben. Junok eun be-
giak erauzi (susta'fetik atara) ta bere e'rege-oiloaren buz-
tan-lumetan banan-banan eza'ri ebazan.

¿Euskaltzaindi au Begi-bakar ta Eunbegiren antzeko
marketsa oteda? Gu baka'fean, batzartu-orduko, edertasu-

1. *Baltzu* erderazko « sociedad » adierazoteko, Mundakan esan -oi
da edo zan. Beste itz, gure artean entzuten eztan *markets* erderazko
« deforme » -ren ordez erabilten dabe euskaldun batzuk.

nean ezlinot Apolo langoak gareala; baiña azbegiak zuzenak daukaguz ta gorputzez orniduak dirudigu guztiok. Batzaferaezkero marketsa du gure izatea. Araorduko, bakoitzak burua ta biotza bereak itu; araezkero amabi buru gara ta biotz bakar bat. *Dauz* ala *ditu* esan bear etedan; *illen* ala *illzen* ala *illen*; *ezkagoz* ala *ezgagoz*... onelango erizkizunetan (kuestiñoietan) bakoitza bere ustên yaube da. Gurarietan osteraz ezkara ez amabi ez amar ez lau izaten, bakar bat baiño, ta geure gutara ta usia bere bakaña da; euskera zaña zañago ta zalago egitea.

Afantzale asko, neguan itsas-zabalera doazanetan, *gora Jaungoikoaren izenean* yagi oi direnez, gu bere *Jainkoaren izenean*, bere *Ama Andra Mariaren magalpean* ta *Euskaleñiaren onerako* asten gara beti lanean. Esakune zañen artean badira batzuk labur-laburak, itz bi soil-soilik daukezanak. Ona bat : *eñana*, *añana*. Gure izate oni izengoitiren bat ezafi bear balitzakio, itz biko esamaiña auxe aintzat artu bear izango litzateke : *euskaltzaindi*, *anaidi*.

Nora zatozan badakizu orain. Zetara zakaguzan yakitea ezta neketsua : anaidi batera anai izatera sartzen da bat. Gure anaidi au ezta, ofegaitiño, gaur egunean elizetan dakuzkuzanak langoa. Anai ofen batzañetan lanari lotuak arotzak izan oi dira agitz; arotza irakasguan (pulpituan) agertzen dan ezpan-biguna; arotzak goyetan soñuka inardu daroen gizonak; arotzak diru-batzaile, argi-egile, irakurle ta pelizdun naiz pelizbako elizgizonak eurak bere arotzak izan doaz geyenak (arotzak ez odolez, anaitasunean baino). Eta bitartean anayak, asko besoak auma dabezala, bat edo bestetxo lo, guztiak gozaro, alperusaina darioela ezeren ardura barik geldi egon dagoz. Gure anaidi au ezta ofelakoa. Ezaugarñizat artu doguzan itzak eurak lanari lotuak gaukez. Beste izkeltzaindiak, gure au baino apainagoak bere badira-ta, ezaugarñizat

batak *Rerum gestarum fides*¹ artu dau; besteak *Apollo palatinus*², besteren batek (Madrilko izkeltzaindiak) *limpia, fija y da esplendor*; guk argin zar batek bere mutilai zuzendu lekioezan itz auetxek daukaguz agiri agirian ezafita : *ekin eta ya'ai*; eta lanari gogoz gakioz eta zintzo gafaioz.

¡Lana, lanari *ekin eta ya'ai*! ¡Euskaltzaindiaren ateko izena ori dala! ¡Ba'uko izana ori eteda? Izenetik izanera sañitan alde andia nabaritu ta oartu oidogu, sinis gogofen batek esan deike. Egi uts-utsa da. Gogamen au buruan nerabilela, asi nintzan bein neure yaioteñian ezaguturiko Leon ta Leonak gomutarazoten eta (gizonak ezta guzura) guztiak zirudien eper-txakur lodi-lodi, eizalgoa (*cazan* ibiltea) aztuta, kriskitin bat edo txitxi entzunezkero edozeinegana yoaten dakien abere otzan-otzan batzuk. Ezkaizan, baina, onetarako ufun ez aintzina yoan. Ona emen bertan belañiak gozatu dauskuzan euskaltzain bañi au. *Severo* dau izena *latza*. Gizon legunagorik lau ezaldira Gernikako Elizan urtearen goyenerik bañenera sartzen. ¡Lana! Gure aleginok gora-bera eztogu gura aiña atara. Euskaltzain guztiok garañoak eta urtetsuak izanfen, Euskaltzaindia seina dogu, urte beteko umetxoa, ta beroni taiua emoten zuzendu bear izan dogu gure lanaldirik onena. Eragozpen andi bat geukan, ganera, joan garean baiño auferago ez joan al izateko. Euskaltzaindiak euskalki bat bear eban, orixe oin dala arazoak mamindu ta ganoraz jarteko. Ikusiko dogu erenegungo batzar ofetatik eñiak bear gebana emoten ete-dauskun. Lana atzak betean dagoan anaidietan, anai guztiak, alkañen leian, lankide izan bear dabe. Zuk gure artean egingo dozun lanaren erakutsi argi bat len irakufi dauskuzun

1. Médaille de l'Académie des inscriptions et belles-lettres.

2. Médaille de l'Académie française.

gai ofetan ikusi dogu. Orain aste ta erdi inguru zure ikaspen ofen idazkin bat(kopia bat)bidali zeustanean ainbeste bidar bateko Dauzat ta Gregoire, besteko Vendries ta Meillet ta Hovelacque irakuferan ain, bide zuzenean zu ikustea ; nire poza! Oraintxe amar bat urte Gipuzkoako Aldundiari bere eskabidez emon neutsan eritzi bat gomutaratu ekidan(datan). Liburutxo bat eskuratatu eusten, zer neritxon esateko aginduaz eta nik auxe, beste zerbait ganeraturata, esan neban : Euskalefitik ate bizi direan euskalariak, geyentsuak, euren idaztietan euskeraz ufi dagoz ; erbañukoak bañiz, geyen geyenak izkuntzalarigoan (Linguistican) motz.

Erbesteko euskalari andien artean iru dazaudaz gure mintzo au geuganatur ikikasi dabenak : Humboldt, Bonaparte ta Schuchardt. Lenengoa orain eun ta ogei bat urte Markinan egon zan Mogel zañaren ondoan ta, Astarloa maisu ebala Durangon. Bigañena geure gurasoen egunetan Euskalefiko uri ta basauri geyen-geyenetan ibili zan, bere *carte linguistique* ta *Le Verbe basque*-ren gayen bila. Schuchardt askozaz oraintsuago Sara-n uda osoan bizi izan zan.

Guk, geure artean noizbait Linguistica ori zabaldu al izateko, euskalari gazte, burutsu ta lanzale bat, lengo baten, Paris-a bidali dogu. Katalanak, lanbide onetan gu baino lentxoago asita dagoz-ta, oraintxe amabi urte iru gazteri emon eutsen ardura au ta gaur Bartzelonan argiurtika dinardue.

Euretariko bati egun batzuk bañu entzun al izango dautsazue, Alemanian, Frantzian, ta Suizan irakasle izendunen zuzenbidez ikasi aban zerbait.

Zuk, Frantzes izkuntzalari ofek lagun dozuzala, egin dako lan ofetan yakingai asko darañuskuzuz. Lautatik bati ezin ikutu izango dautset nik, nire lantxo au luzegi izan eztaitean. Izker a bat zeinbat eta zelan bifañdatzen dan ikus-

teko « idazti-atal bat gizaldi askotako eraz begi-auñean imintea dala onena » dirauskuzu. Gure idaztiak, zâñenak bere gazte dira ofelango lanik egiteko. Zortzigañen gizaldikotzat Iturrizak bere *Historia de Vizcaya*-an irakurkizun bi darakuskuz. « Andramendiko Jaureguian » asten da lenengoa; bigañena « Andramendiko Jauregui aurreco arestian Eleizaren aurrean » C-ren ordez K ezañita, Jauregui-ri *u* kenduezkero, gaur eginak dirudie irakurkizun onek. Orain 24 bat urte Lumo edo Luno-ko pañoku zanari entzun neutsan bere elizako artxibuan egozala Ituñizak Iburguengandik eta Iburguenek Laredoko seme Cacho-pingandik arturiko idaztiok. Onelango gauzetarako zale-tasunik eztot inoiz izan ta enintzan joan Lunoko liburu zañok irakurtera. Idazki ofek eta Leloren eresia Cacho-pinek, Iburguenek edo euren egunetako beste buru-beroren batek sortuak dirudie.

Etxe onetakoxe Artailutegian (Museo de pinturas-en) Eloñioko seme Mendiak 1609-gañen urtean egindako laurka (kuadru) eder bat dakusku, Bizkaiko jaun batek Gernikan egindako zina. Euskerazko itz onetxek daukaz argiro ezañita :

Au da nola milla ta laureun ta
irurogueta amargarren egunean erregue
jaun Fernando bostgañena
Guernicaco arbolen bean
bizcaitarrai confirmadu
eguin ezan euren foruac ta
eurac bera yauntzat ecutea.

Irureun urte ganean daukazan irakurkizun onetan gaur esaten ezlogun itz ta esakerarik banakaren bat baino ezta ageri. *Confirmadu*-ren ordez *konfirmadu* ta *confirma* entzun oi doguz. *Eginezan*-en antzeko adizkinak (berbozalitxoak) Plentzia-inguruan aotan artu daroetz. *Ecutea* da belañietan

ots egiten eztauskun itz bakafá. *Eukilea*-ren uts bat eteda? Ala Efonkarin erabilten dabén *ekun* « haber » orduan Bizkayan esaten etezan? Gure egunetan bai Bizkayan ta bai Gipuzkoan *elóri izan zan, ekaíi izan dabe edo due* entzuten doguz. Beste euskalkietan aditz batzuk *izan* artzen dabe laguntzat, beste batzuk *ukan* : *elóri izan zan, ekaíi ukan dute*. *Ukan*-en ordez *uken*; *ukhan*, *ukhen*, *uketu ta ekun* (Efonkariko *uken*) erabilten dabez or-emenka. Guk bere, bear bada, orduan *ekaíi ekun dabe* esan izango dogu. Len aitururiko itz *eurak bera yauntzat ecutea ta eurak bera yauntzat izalea* bardinak dira.

Gure izkera onek laureun-bosteun bat urletan egindako aldakuntzak *Refranes y sentencias* deritxon gutun edefean ondoen ikasi daikez.

Izkera baten aldakuntzak bitarikoak dira : batzuk, berezkoak; besteak ezaíiak, eraginak, cratsiak, ganeratuak. Orain mila, bi mila urteko aldakuntzak eunetatik larogeta amabost, berezkoak ebazan gure izkera zar onek. Gure egunetan oartu al daikeguzanak geyen-geyenak gure artean dagozan erdaldunak eta gure buruetan irakurtez sartzen doguzan erdalkeriak eragindakoak dirá. Mutil kozkortxoá nintzala, Gernikan *ikusi dozu gure alkatea*-ren ordez, *ikusi dotsazu gure alkateari* itandu eroela zabal zan gure artean. Aldakuntza au euskereak eztau berezkoa; erderazko *ha visto usted a nuestro alcalde*-k eraginikoa dau.

Aldakuntza ofetan *gramalikea* bera uritzen dala adierazoteko, egoki agertu dausku gure lagun bafi duin onek aintzinako bizkaitaíen atzizki *-ean* edo *-rean* « esakun bakanen baten izan ezik, zeatz galduta daukagula ». Berak erakutsi dabén *aizea poparean, aizea popatik*-en ordezko esakera txanbelin ori, Lekeition aúféz erabilia da. Mundakako zaíen artean, erdaldunen *de tal palo tal astilla* adierazoteko, *norean arean, aritza zozpalerean* esan

oi dabe edo beintzat eben. Urdulizko atsotxo bati gabonkanta zar auxe entzun neutsan bein : *¿Maria ¿norean zatoz?* — *Josepe, eʔolarean*. Eta Bizkaiko unada askotan entzun daroaguz *burureango* (jaqueca) *sabelereango* (dysenteria) *estereango* (catarro intestinal) *alboreango* (pulmonia) *ondoreango* (descendiente); geyenetan *-reango*-ren ordez *rengo*, *riengo*, *ringo* aldatuta.

Beronen lan onetan agertu ezaŕen, noiz edo bein gogoratu izan aldakio gure lagun oni *gramatika*-gai artean zeintzuk eʔazen galtzen direan : zentzukideak (sinónimos), euren ordezko gairen bat daukenak. Len aitatu dodan *Maria ¿norean zatoz?* — *Josepe, eʔolarean* eta *Maria ¿nondik zatoz?* — *Josepe, eʔolatik* bardin dira zentzunez eta onegatik, *lik* atzizkiak itota il zan Bizkaierazko beste atzizki lagun ori. Orain ile biko batzar baten neure lagunai izkuntzalarien *Repartición semántica* (Zentzun-banalsuna) adierazoteko, eʔiak aotan arturiko gertari polit asko aitatu neutsezan. Beste auxe bere erabilten dabe nik ondoen dakidan euskeraz : *alboreango* (pulmonia) *albotiko* (padrino de boda), *alborean* ta *albotik* zentzukideak irudi izanaŕen.

Erderazko *por* adierazoteko atzizki bi daukaguzala dinozu : *-gaitik* eta *-aŕen* : *neugaitik*, *Jaungoikoaren* (eʔi batzuetan, ez ain egoki, *Jaungoikoaren amorearen* esan oi da). Beste zazpi edo zortzi bere badaukaz gure izkera ugari onek : 1^a Es hecho por mi, *neuk egina da*; 2^a Me tienen por debil, *makaltzat nauke*; 3^a Unos por mar, otros por tierra, *batzuk itxasoz, beste batzuk legoŕez*. Por Navidad, *gabonetan, egubeŕiz*; 4^a Seis reales por vara, *sei eʔreal kanako*. Por cada hombre, *gizon bakoitzeko*; 5^a Por semanas, *asteka*. Euskalki batzuetan *-kal* da atzizki au. *Gure ardiak aldikal artzainkatán tugu* esaten dabe Eronkarin : « pastoreamos nuestras ovejas por turnos »; 6^a Se han ido por aqui, *emen zear yoan dira*. Euskalki batzuetan *hemen gaindi*,

heben gaintih; 7^a Por unos lugares esteñiles, *toki ayor batzu barna*. Por los huesos, *hezuñetan bañena*. Bizkayan onen ordezeko *bañuna* ta beste euskalki batzuetan *bañena* erderazko « hacia » bailitzan erabilten doguz; 8^a Por hacerlo mejor, *obeto egiteañen* (gertaldi au lengo baten antzekoa da); 9^a Voy por leña, por vino, *egurzun, arnozun noa* (au ezla Bizkaikoa). Beste batzuk *egurketa, arnoketa* esan oi dabe; *guk eguñetan, ardaotan*; eta obeto *eguñetara, ardaotara*.

Onenbeste *por* daukaguzala ¿zegaitik eteda battxo bere ez galdu izatea? Nire ustez zentzukide eztirealako. Eñiak aintzat artu dabezan bitatik bat galdu da. ¿Por qué? erderaz itandueran eñiak « causa final » ta « causa impulsiva » eztauz gomuta izaten, zer direan bere eztaki. Lenago gure asabak batzuetan *zegaitik* itandu eroen, beste batzuetan *zerañen* edo *zeren*. Gure egunetan azken au il-andi bizi da. Izpazterko seme Bañenetxea elizgizonak bere anai A. Kardaberaz-en *Pasio-kanta* Bizkayeraz idazkeran *zeren oilaña* ãpaldi baten auñean ezañi eban, ez itantzeko « ¿Por qué el gallo? » « porque el gallo » adierazoteko baino. Ta zentzun onetantxe artu eben Megel biak eta beste askok. Gaur, zorionean, ezlantzugu.

Euskerearen ugaritasun batzuk kaltegañitzat daukazuz; eta au adierazoteko, erderazko « ha venido » lau eratara erakutsi daikegula dinozu : *etori da, etori dok, etori don, etori dozu*. *Da* ori, laguntzaile-bezelan bagarik, izakitatzat darabilgunean (*etori da*-ren ordezeko *nor da* dinogunean) beste zortzi eratara eñiak erabili oi dau. Gizon batek, bakaña dala, alde asko daukaz ta alderik adaña izakera. Onegaitik noiznai, ¿gizon ori nor da?-ri erantzun onek emon daroatsaguz : *nik gizon ori adiskidea* *DOT*; *ik gizon ori aila* *DOK*; *ik, emakume, ezaguna* *DON gizon ori*; *Lopek gizon ori yoko-lagun* *DAU*; *guk gizon ori auzoko* *DOGU*; *zuk areriorik andiena* *DOZU gizon ori, zuek etzeko* *DOZUE*; *orék*

ori aide DABE. Eta *da*-ren ordez *dot, dok, don, dau, dogu, dozu, dozue, dabe* erabili daroaguzanez, *dira* esan-beaŕean *dodaz, dozak, donaz, dauz, doguz, dozuz, dozuez, dabez* aotan artzen *doguz* ¿ « Nortzuk *dira gizon oŕek?* » itandu daigunari erantzun onek emon daikioguz : *Nik gizon oŕek adiskide dodaz* (ditut); *ik, Paula, gizon oŕek ezagunak donaz...* eta oŕelantxe beste hosi eratarra.

Aberastasun au kaltegaritzaŕt artuta, galdu daitean nairik bizi bear etedogu? Nire ustez ez. Bizkai ta Gipuzkoako uri batzuetan zerbait alazokoa edo bikaina dala uleterazoteko, *munduan batekoa* dala esaten dabe. Onetarikoxea, munduan batekoa, da gauza batzuetan gure izkera zar au. Beste edozeinetan esakizunak (las proposiciones) irukoitzak direala esaten dabe : *sujeto, verbo ta predicado* daukez. Euskeraz esakizun asko laukoitzak *dira : sujeto, objeto, verbo ta predicado*-dunak. Len aitaturiko *nik gizon ori aita dot* esakizunean *nik* « *sujeto* » da; *gizon ori* « *objeto* », *aita* « *predicado* », *dot* « *verbo* ».

¿Ugaritasun bakar onek aŕotuta bizi bear etedogu? Canada-ganeko eŕialde otz edurtsu Alaska-n luŕak uŕezkoak eidauz bere eŕaiak; azala, elkoŕa; ez labore, ez barazki, ez arnaririk inoiz eztakaŕena. Euskereak beronen eliztia (gramatika) uŕezkoa dau, aberatsa; iztegia, Altube yaunak egoki esan dauskunez, beste izkera batzun ondoan ikusiezkeru, gauza askotan uŕia. ¿Aŕotu? Ez. Oŕetan alpeŕik emongo geukean astia, eŕaietako ugaritasuna uŕitu bagarik, azaleko uŕitasuna ugaltzen emon daigun. ¿Zelan? Bide egoki batzuk darakuskuzuz onetarako : egokienak, sei ta zazpi ~~garrena~~. Aleman ta Ingelesen antzera itz bikoitzak egitea ta gaur egunean edozein izkeratan egiten dabena, itz aŕotz asko geure iztegian sartzea.

Aberats dakuskuzan izkera oŕen iztegia, geyenona beintzat, amaboskaŕen gizaldian, alde andi bagarik, gaur gurea langoxetxoa zan. Yakituriazko zerbait adierazo

gura ebenean, euren iztegia zokondoan itzita, latinera yoten eben. Izkera ořek ařezkero egin dabena guk bere egin daikegu. Ořegaitino gure aldean eřaztazun andiak daukez izkera ořek, gaur beintzat, itz bařiak sortu ta zabaltzeko. Ona emen Aleman-izkereak daukazan eřaztazun guk ezt aukaguzanak :

Lenengoa. Euren izkerea izkelki (dialecto) askotan banatua egoala, gaur bakar bat dauke eskoletan, egunero-koetan, gutunetan. Guk bařiz yasoala baiřo euskalki geyago daroaguz bizkařean.

Bigařena. Alemanian itz bařigileak euren izkerea eřoz ta eřuz dakie, sustařez ta adařez. Gure artean arazo ori leporatu daben askok eztazaue bear danez euren izkerea. Ezta eřaz yakitea, egia esan; oraindino *Fonetica* erdia gitxienez batu bagarik daukagu-ta. Iru itz baři aiatu dozuz zeure irakurtaldian : *erpedar*, tabaco; *eriotzgin*, asesino; *benetolari*, formal. Lenengoa ezta bidezkoa, bigařena bere ez, ezta irugařena bere. *Eře* « quemar » aditz ořek eztau *e* galtzen, *consonante* bat yoeran : *eřebedar*, *eřebero*, *eředura*, *eřegaldara*, *eřegari*, *eřegisel...* ta beste batzuk eřiarenak dira : guztiak *e*-dunak. Orain bigařena : *Eriotzgin* : Erderazko « muerte » ezta *eriotz*, *eriotza* baiřo. *Eriotzagin* izango litzake asesino, eraile bizi ezpalitz. « Muerte » *eriotz* izanezkero; *eriozkin* izango litzake « asesino ». Aztertu daigun orain irugařentxoia : *Benetolari*. *Aitzurlari* eřiak esaten dauku, *aitzuřetolari* ez; *autulari* bai, *autuelolari* ta *auzilari* ta *garezlari* ta *gudulari...* ta *txistulari* bai; ez otera, *auřeskuetolari*, *auzietolari*, *garatzetolari...* ta abařok.

Irugařen eřaztařuna. Alemanian euren itz bařiak, bi-koitzak direanean, oso-osorik daukez beti euren gayak. Gure artean bařiz saři bata edo bestea, noizbait biak, aldatuak agertzen dira. *Brot* esan daroe arek, guk *ogi* legez. *Brotbäcker* arek, guk *okin* « panadero » *ogigin*-en

ordez; *Brotkruste* arek, guk *olazal* « *currusco* », *ogi-azal* esan-beaŕean; *Brotrest* arek, guk *otondo* « *zoquete* » *Brot-sack* an, emen *otzara* « *cesto para pan* ».

Ezta beraz aŕitzekoa, aŕigaŕia irudiaŕen, niri an gizon eldu batek bein esan eustan au : eurak, itz baŕiak ulertzeko, eztabela iztegia zabaldu bear izaten.

Laugaŕen eŕaztasuna. Arek, euren izkera eder, zal ta gaitza aberasketako, guk eztaukagun beste eŕaztasun andi bat dauke : auxe, nire ustez, andiena : lurhira osoko eŕirik irakurlêna eurena izatea. Inor ezta Alemanian, zoro ta goyarin ta ilbiziko batzuk izan ezik, inortxo ezta eŕi atan zortzi bat urte eskolan irauin eztabezanik; eta bertan ganoraz ta eŕime lan eragiten dautse. Gure artean, baŕiz, batetik ezetariko ikaste bagakoak asko dira, keko-meko ta nâs-mâs burua argitu dabenak, geyenak; eta euskerazko ikasbide bagakoak Euskalcŕiko ume ta ume-rezi guzti-guztiak doguz zorigaiztoan.

¿ Gaitz izango eztoĝu onelara geure izkera ugaltzea? Itzak, zeinbatgura, zelan edo alan eratu leikez; Webster ingelesaren nai Littré frantsesaren iztegi astun itzalak lango lodi ta bete-beteak eratu here bai; baiŕia gizonen buruan bizi eztan iztegia ezta bizi. Gure arloa bikoitza da : itzak batuaz ta bear dŕaneanak sortuaz iztegia aberastu ta gaŕnera itz ofei baseŕi ta uri' uetan bizi-tokitxo bat atondu.

Euskaldun guztiak euskerazko koak di-reala esan dautsuet len. Biar edo e. anean, ezlot beste onenbeste esan al izango. Eskeŕak Bizkaiko Aldundi (Diputazinoe) gogo andiko ta esku-zabalarari euskerazko ikasĝutxo ofek oraintxe dakuskuz erneten. Biotz-biotz-tiko neure atsegina erakutsi gura dautset asmo au Bizkaiko Yauregian sartu dabenari ta lan neketsu au eskuarte-an darabilen gizonai. Urte gitxitik onanzkoan geure Agintariak izatea emon dautsen ikasĝu ta Yausoro (granja)

ta eria argitzeko beste izaki asko ikusita, eritafak, neure urte ugariotan eztautsat inori txalorik eskatu; baiña egun ospetsu onetan jañen! Bizkaiko Aldundi gogo-aundi ta argizalea guztiok txalokatu eizue.

Zuk, euskaltzain bañi gartsu ofek, gure izkera zâr au ugaltzeko beste bide egoki bat erakutsi dauskuzu : bes-teak egin dabenez, itz arotzak euskerazkotzat artzea. Bide au, batez bere, geuk ordezeko itzik lendik eztaukagunean, artu bear dogu. Dausat-en irakaspen bat onetsita, itz batzuk diru asko erabilia bezelan laban-laban gelditzen direala ta izkerea, berak eztakiala, itz zâr makaldu ofen ordezeko bila ibili dabilela dirauskuzu. Izkerak hebilz, baina geu ezkaizan arlo ofetan sartu. Itz bañi inoiz bizi eztireanak argitaratu-orduan elitzake egoki izango itz zâr oboen-oboen biziari dautsenak eta ilak eurak ilunpean lurpean sartzea. Ganera guk iltzat ela ez-il bai-il bizi direantzat daukaguzan asko izan leiteke nunbait bizi izatea. Zuk ilanditzat aitatu dauskuzun *ala* Lafaungo ibañean Napafoan geure *min* baizen bizkor bizi da. Aurten, antxe nintzala, ikusi ta ikasi neban au. Zuk iltzat emon dauskuzuzan *eraile* ta *bezuz* bizi dira : *eraile* liburu askotan, *bezuz* Markina-ondoko Zeafoztan gitxienez. Iztegia argitaratuta gero, zeafoztar bati auxe entzun neutsan : *sagafoetan aurtengo bezuzia baukagu*. *Iñudea laztan dauenak seiari bezuz* « Refranes y sentencias » gutun edefa idatzi ebanak onelantxe biurtu euskun; « quien ama a la nodriza regala al niño ». Zeafoztañen ustez biurpen ori onelantxe izango litzake zeatzago; « quien ama a la nodriza (da) provisiones al niño ».

Ume-umetatik eun bidar entzunda neukan *atablea*, « banquete » adierazoteko. Erderazkoa neritxolako, eneban iztegian sartu. Urteak yoan ta urteak etoñi, bere moduko itz ofen yatoñia zein dan otu yatala uste dot. Nire amaren amamak frantzestean Erigoitin ostatua eukan.

Napoleonon soldau zafen ezpanetatik ikasita, bere buruan bizirik erabilen iztegitxoan itz afortz batzuk sartu ebazan : *oera* esateko *a la kuxé*; txapela alborantza erabiltea, *a la kakarda*, yan-edan andi bat, *atablea*. Aldi atan gudariak euren burukoan *cocarde* eritxan ezaugarí bat erabilten eben dingilizka : andik sortu zan *a la kakarda*. Saíi eñzun izango eban Efigoitiko ostatariak *allez coucher* « zoaze lotara »; ta ogearen itz bafía *a la kuxé* alan sartu yakan buruan. Afortzen bazkari ta apariak etxekoenak baino ugariago izan doaz ta Napoleonon mutil arek *messieurs à table* esanda, mayan yarten ikusita, yan-edan andi erde-razko « banquet » -entzat, ostatari ak bere iztegian itz afortz auxe etxekotu eban : *atablea*.

Euskaltzaindia, geure izkera zar au gizendu ta sendatu dain, izan beite zelanbait neure biñamamaren eñxe Eri-goitikoaren antzera, afoztegia, erbesteko izentzat ostatua. Baina itzok etxekotu-orduko adi ta zur egon bear izango dogu.

Erdu, Altube, aspaldiko adiskide ta lankide gogotsu ori, erdu gure Agife biotz-bigun, ortzargi ta idazle txukunak ondo herotu baino lenago utsik itxi euskun aulki au betetera. Erdu ta aguratxo azur ta azal-uts izan arte ezeiozu inori yezargu au utsik itxi; eta or zaukaguzan edo zaukezanartean, orainarte bezelan, lanzale izan zaitez. Zure lanak, Bibliako Aitalen ospetsu aren semên antzera, zuk or Euskaltzainez sortu daizuzan buruzko umeak, gutun ta gutun, laugarfen ta boskarfen gizaldirarte bizi beitez; geu ta geure ondorengoen bidez gure euskera maitegarí zafez makurtu ta gosez auldu au bafiro lerdendu, birbiztu ta betikotu daikegun.

EUSKALTZAINDIA'REN AGERKIZUNAK

Euskaltzaindia'k, 1919, 1920 la 1921' gaŕen urteen arian bereix argitaratu dituan agerkizunak orixek dira :

1919. — REGLAMENTO INTERIOR DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA. *Euskaltzaingoaren araudi estaria*. Editorial vasca. Euzko-Argitaldaria. Bilbao, 1919. Amabost ofi, in-16 einekoak.

Aitua dago. (Agotado. *Épuisé.*)

1920. — EUSKALTZAINDIAREN BARNEKO ARAUDIA. *Reglamento interior de la Academia de la Lengua Vasca.* Euzko Argitaldaria. Editorial vasca. Bilbao, 1920. Ogeita-lau (12 + 12) ofi, in-16 einekoak.

Auxe da aurretik dabilen gutuntxoaren 2'gaŕen ateraldia. Ikus EUSKERA' ren I^{ko} Atala, 60' gaŕen ofian.

1920. — EUSKALTZAINDIAREN SORTARAUAK. *Estatutos de la Academia de la Lengua Vasca*. Euzko Argitaldaria. Editorial vasca. Bilbao, 1920. Amasei (8 + 8) ofi in-16 einekoak.

1920. — INFORME DE LOS SEÑORES ACADÉMICOS A. CAMPIÓN Y P. BROUSSAIN Á LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA SOBRE UNIFICACIÓN DEL EUSKERA. Imprenta del Ave Maria, Bilbao, 1920. Ogei ofi, in-32 einekoak.

1920. — EUSKERA. EUSKALTZAINDIA'REN LAN ETA AGIRIAK. *Trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca*. Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque. I^{ko} urtea, Iⁿ zenbakia. Martín, Mena y C^{ia}, San Sebastian. Laurogei ofi, in-8^o einekoak.

Salgei dago Donostia'n, Garibay, 28 : 3 laurlekotan.

1920. — EUSKERA... I^{ko} urtea, II gañen zenbakia. Edouard Privat' en irarkolan, Tolosa (Prantzi'koan), 1921. Laurogei-ta-amasei ofi, in-8° einekoak.

Salgei dago Donastia'n, Garibay, 28 : 3 laurlekotan.

1921. — EUSKERA... II gañen urtea, I^{ko} zenbakia. Altube'tar Seber yaunaren saferako itzaldia eta Azkue yaunaren erantzupena. Edouard Privat' en irarkolan, Tolosa-Prantzikoan. Iruretan-ogei-ta-laur ofi, in-8° einekoak.

Donostia'n, 28, Garibay.

Laster argilaratzekoa :

1921. — EUSKERA... II gañen urtea, II g. zenbakia. Intza'r Abaren saferako itzaldia eta Olabide' tar Efraimun Abaren erantzupena.